



AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Iñaki

Zuzenbide Administratiboan katedraduna
Euskal Herriko Unibertsitatea
Manuel de Lardizabal, 4
20018 Donostia
dapagzii@sc.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2001), 8; 65-91]

Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera Arautzen duen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren legaltasunari buruzko Irizpena

(Legal dictum on the legality of the Statutory Decree 372/2000,
which regulates the use of the Basque Language in the Public
Administration of Navarre)

Iarraian, Iñaki Agirreazkuenaga Zuzenbide katedradunak Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera Arautzen duen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren legaltasunari buruz prestatutako irizpen juridikoa jasotzen da, bere osotasunean. Lekunberriko alkateak beste hainbat Administrazio eta erakunderen izenean zuzendu zion katedradunari Irizpen hau prestatzeko eskaria.

a continuación se reproduce en su integridad el dictámen jurídico emitido por el catedrático de Derecho Iñaki Agirreazkuenaga a requerimiento del Alcalde del Ayuntamiento de Lekunberri (en representación de otras Administraciones e Instituciones) sobre la legalidad del Decreto Foral 372/2000, de 11 de diciembre, por el que se regula el uso del vascuence en las Administraciones Públicas de Navarra.

Ensuite, on reproduit dans son intégralité le rapport juridique émis par le professeur de Droit Iñaki Agirreazkuenaga à la requête du Maire de la Municipalité de Lekunberri (en représentation d'autres Administrations et Institutions) sur la légalité du Décret Foral 372/2000, du 11 décembre, par lequel est réglementé l'usage du basque dans les Administrations Publiques de Navarre.

Lekunberriko alkatearen eskariz prestatutako irizpen juridikoa (beste Administrazio eta Instituzioak ordezkaturaz), Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren legaltasunari buruz (NAO, 2001eko urtarrilaren 5a).

1. Sarrera. 2. **Hizkuntzalaritzako oinarrizko printzipioak.** 2.1. Hizkuntzen ofizialtasuna. 2.2. Gaztelania jakiteko obligazioa. 2.3. Lurralde bateko berezko hizkuntza. 2.4. Hizkuntzagatik diskriminatzeiko debekua. 3. **Nafarroako legediko gakoak: Foru Hobekuntza eta Euskarari buruzko Legea.** 4. **Abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren legaltasunaren azterketa eta balizko kontrol juridikzionala.** 4.1. Foru Dekretu berriaren legaltasunaren azterketa. 4.2. Jurisdikzionalki kontrolagarriak diren xedapenak, zuzenbide osoz deusezak direla presumitzeagatik. 5. **Ondorioak**

Lekunberriko alkateak, behean sinatzen duen Administrazio Zuzenbideko katedradunari, honakoari buruzko azterketa juridikoa egin dezala eskatu dio

KONTSULTA

Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren legaltasuna

NAOn 2001eko urtarrilaren 5ean argitaratutako abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuko xedapenen kontrol juridikzionalaren bideragarritasuna.

Egin zaidan eskaera onartuz, eta kontsultari erantzuna emanez, honakoa aurkezten dut

IRIZPENA

1. Sarrera

Argi dago hizkuntzei buruzko diskurtsoak, Nafarroan, krispaziotik aldenitu beharra daukala. Lasaitasun, arrazionaltasun eta, batik bat, zentzu komun dezente behar ditu egoerak, berezko bi hizkuntza dauzkan Foru Komunitateko biztanleak gizartearen integra daitezzen puntu komunak eta oreka bilatu ahal izateko, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak dioen bezala. Hizkuntza bat baino gehiago dauden lurralde guztietan, herritarrek beren harreman publiko nahiz pribatuetan hizkuntza bat askatasunez aukeratu ahal izateko oinarri batzuk

finkatu behar dira, betiere proportzionaltasun printzipioa eta errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuz. Botere publikoek arduratu behar dute, beren eskuduntzen eremuan, pertsona guztiei inolako diskriminaziorik gabe aitortzen zaizkien hizkuntza eskubideak gauzagarriak izan daitezela bermatzeaz.

Hizkuntzei buruzko debatea desdramatizatu eta normalizatzeko, esan beharra dago uste baino askoz ere ohikoagoa dela eleaniztasunaren fenomeno. Oro har, esan liteke Europan ez dela hizkuntza gutxiturik gabeko Estaturik. Eta Afrika, Amerika, Asia nahiz Ozeanian herrialde guztiak dira ele anitzak; hizkuntza homogeneitatea salbuespenezkoa baino ez da. Europako Batasunean bertan, lan hizkuntza diren hizkuntza ofizialen arteko elkarbizitza eta arauketaren inguruan pizten dira eztabaidarik handienetariok. Eta arazo honek, Europako Batasuna ekialderantz zabaltzen ari den garaiotan, lehenbailehen behar du erantzuna. Ostera, Estatuak beren berezko hizkuntzaren alde agertzen duten jarrerak ez du akordio batera iristeko aukera gehiegi errazten.

Hausnarketa orokor hau egin ostean, eta egin zaidan kontsultaren harian Irizpen honen xedeari erantzun ahal izateko, behar-beharrezkoa da, lehenik eta behin, jurisprudentzia konstituzionalaren esanetan gure ordenamendu juridikoan eleaniztasunaren oinarrian dauden printzipio juridikoak zeintzuk diren labur bederen azaltzea (II). Ondoren, LORAFNaren eta Euskarari buruzko Legearen ikuspegitik, Nafarroako legediaren gako zehatzak aztertuko ditut (III). Hori guztia, Irizpen honek aztertu beharreko gai nagusiak lantzeari ekin aurreko sarrera izango litzateke, abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren (NAO, 2001eko urtarrilaren 5eko) irakurketa juridikoari heltzeko, bere legaltasunaren eta balizko kontrol juridikzionalaren ikuspegitik (IV).

2. Hizkuntzalaritzako oinarrizko printzipioak

Konstituzio espainiarreko 3.1 artikuluko lehen paragrafoaren esanetan, gaztelania da Estatuko hizkuntza ofiziala. Hori esatean, gainerako hizkuntza ofizialek ez daukaten maila bat ematen dio gaztelaniari, bera izango baita autonomia erkidego guztietan, eta beraz, Estatu osoan, ofiziala den hizkuntza bakarra.

Bestetik, Konstituzioko 3.2 artikulua dio "gainerako hizkuntza espainiarrak dagokien autonomia erkidegoan izango dira ofizial, beren Estatutuek diotenaren arabera". Beraz, gaztelaniak duen ofizialtasun berbera izango dute gainerako hizkuntza espainiarrek, baina beren autonomia erkidegoan betiere.

Konstituzioak, halaber, gaztelania jakiteko betebeharra ezartzen du, eta, inplizituki, hizkuntzagatik ez diskriminatzeo printzipioa aitortzen du. Estatutu batzuek, hala nola Kataluniakoak eta Euskadikoak, bakoitzak bere autonomia erkidegoan berezko hizkuntza gisa aitortzen dute katalana eta euskara, hurrenez hurren. Nafarroaren kasuan, 18/1986 Foru Legeko 2.1 artikulua deklaratu ditu gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntza.

Nire iritzian, hizkuntzalaritzako printzipio nagusiak ofizialtasuna eta hizkuntzagatik ez diskriminatzeo printzipioak dira, zalantzarik gabe. Printzipio osagarriak, berriz, gaztelania eta autonomia erkidegoko hizkuntza jakiteko beharra lirateke. Azter dezagun printzipio hauetako bakoitzaren edukia xehetasun handiagoz.

2.1. Hizkuntzen ofizialtasuna

Zera adierazi du Auzitegi Konstituzionalak: "hizkuntza bat ofiziala da botere publikoek beraiekin, beraien artean eta pertsona pribatuekiko harremanetan balio osoz eta ondorio juridiko guztiekin komunikatzeko tresna normala dela aitortzen dutenean, hizkuntza horren errealitatea eta fenomeno sozial gisa duen egoera edozein izanik" (AKE 82/1986). Beraz, hizkuntza bat lurralde jakin batean **ofiziala** dela deklaratu den unetik, inolako trabarik gabe eta eraginkortasun juridiko osoarekin erabili ahal izango litzateke harreman publiko eta pribatuetan. Ofizialtasunaren lehenengo ondorio juridikoa, beraz, **hizkuntza erabiltzeko eskubidea** izango litzateke, bai alderdi aktiboan, bai pasiboan (hizkuntza hori erabiltzeko eskubide subjektiboa batetik, eta beste alderdia organismo publiko bat denean erantzuna aukeratutako hizkuntzan jasotzeko eskubidea bestetik). Horrek, jakina, egitura administratiboak eta botere publikoak hizkuntzen ofizialtasunera egokitu beharra dakar berekin.

Beste alde batetik, hizkuntza bat ofizial deklaratuak sortzen dituen ondorioen artean, botere publikoek hezkuntza planetan hizkuntza ofizial horren irakaskuntza sartu behar dutela azpimarratu behar da. Derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan, ikasleek hizkuntza ofizial hori badakitela bermatu behar dute [vid., honi dagokionez, LOGSEko 19.a artikulua]. Halaber, Auzitegi Konstituzionalak adierazi duenez, "Estatuak (autonomia erkidegoak barne) gaztelania eta erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala ezagutzen direla bermatzeko **obligazio konstituzionala** dauka ...; ondorioz, erkidegoko ikastetxeetan bi hizkuntza ofizialak irakatsi beharko dira, helburu hori betetzeko neurrian. Betebeharrak ez du Estatutuak bakarrik ezartzen, baizik eta baita Konstituzioak berak ere

(3. art.)". Konstituzioaren interpretatzaile gorenak, gainera, zera erantsi du: "bi hizkuntza ofizialak eraginkortasunez irakastea posible egiten ez duen gutxieneko ordutegiaren araudi batek, urratu egingo luke betebeharrak konstituzional hau" (AKE 88/1983). Beraz, hizkuntza ofizialen irakaspenera bermatzea ez da nahikoa; beharrezkoa da irakaskuntza hori **eraginkorra** izatea. Derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan, ikasle guztiek, ikasi duten ikastetxea eta hautatu duten eredu edozein izanik, lurralde horretan ofizial diren hizkuntzak jakin behar dituzte.

Baina kontuan izan behar da ofizialtasunetik eratorritzen diren ondorio juridiko hauek modulazio zehatzak eska ditzaketela, errealitate soziolinguistikoarekin eta herritarren borondatearekin bat etortzeko. Valentziako Autonomia Estatutuak, adibidez, valentzieraren eta gaztelaniaren ofizialtasuna deklaratu du, eta bi hizkuntzak jakin eta erabiltzeko eskubidea aitortzen, baina aukera bat aurreikusten du: legearen bidez, "hizkuntza baten zein bestearen erabilera nagusitzen den lurraldeak adieraztekoa... (los territorios en los que predomine el uso de una y otra lengua)". Geroago, valentziera erabili eta irakasteari buruzko Legeak (DOGV, 1983ko abenduaren 29koa) bi hizkuntzen koofizialtasuna adierazten du berriz ere, eta, beraz, balio eta eraginkortasun juridiko osoa aitortzen dizkie erkidegoan valentzieraz egindako jardura administratibo guztiei (9. art.), eta, bestetik, gehienbat valentzieraz egiten den eta gehienbat gaztelaniaz egiten den lurraldeak zehazten ditu. Hezkuntza maila guztietan derrigorrez sartu behar da valentziera, baina gehienbat gaztelaniaz hitz egiten den lurraldeetan, pixkana-pixkana sartuko da, helburu hori duten ekimen publiko zein pribatu guztiak onetsiz, betiere lurralde horietan bizi diren gurasoek beren seme-alabek irakaskuntzan valentziera ikasi behar izatea salbuesteko aukera izanik. Ondorioz, garbi ikus daiteke egoera soziolinguistikoa dela-eta lurralde hauetan modulatuta egiten dela ofizialtasunaren ondorio juridikoetako bat (hizkuntza derrigorrez irakatsi beharra). Dena den, horrek ez du esan nahi gerora begira egoera horrek aldaketarik izango ez duenik, valentzierak lurralde horietan ere ofizial izaten darrai-eta.

2.2. Gaztelania jakiteko obligazioa

Hizkuntzari dagokionez, Konstituzioan lehen begi kolpe batean adierazgarriena gertatzen dena zera da: gaztelaniaren eta Espainiako gainerako hizkuntzen ofizialtasunarekin batera, gaztelania jakiteko obligazioa ezartzen dela. Klausula horrek, azkenean aldatu ez bazen ere, eztabaida konstituzionalak sortu zituen: batzuek ezaba zedila eskatu zuten, eta beste batzuek, berriz, obligazio hori gainerako hizkuntza

ofizialetara ere zabal zedila. Jakina, izan zen gaztelania jakiteko obligazio hori gaztelania nahitaez erabiltzeko obligazio bihurtu nahi izan zuenik ere, koofizialtasunak ematen duen aukeratzeko eskubidearen kaltetan. Hala ere, ez zen aukera hauetako bat bera ere onartu, eta, beraz, Konstituzioaren esanetan gaztelania da derrigorrez jakin behar den hizkuntza bakarra, nahiz eta edozein hizkuntza ofizial balio eta eraginkortasun juridiko osoarekin erabiltzeko eskubidea aitortzen den. Honen aurrean, esan behar da Konstituzioak ez duela gaztelania erabiltzera behartzen, ezta bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia erkidegoetan ere. Egiten duena, aukeratutako hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea bermatzea da.

Bigarren, inork Konstituziotik ondorioztatu nahiko balu autonomia erkidego elebidunetan hizkuntza ofizialak ez daudela berdintasun juridiko egoeran, jakiteko obligazioa gaztelaniari bakarrik dagokiolako, matizatu egin beharko litzateke, eta galdera hau egin: nola bermatzen dute botere publikoek gaztelania jakiteko obligazioa? Erantzuna, beti, derrigorrez irakatsi beharri eta aurreikuspen hori hezkuntza planetan txertatzeari lotuta egongo da. Hala ere, gogoan izan behar da hasiera batean aurreikuspen hori ofizialtasunaren deklaraziotik eratortzen dela, zeren eta Auzitegi Konstituzionalaren esanetan Estatuak derrigorrezko hezkuntzan hizkuntza ofizialak eraginkortasunez irakasten direla bermatzeko “obligazio konstituzionala” dauka. Ondorioz, logikoa dirudi autonomia erkidego elebidunetan derrigorrezko hezkuntzan daudenek bi hizkuntza ofizialak dakizkitela ondorioztatzea, ez ordea hizkuntza ofizial bakarra gaztelania den lurraldeetan.

Beraz, labur esanda, gaztelania jakiteko obligazioa ezartzen duen klausula konstituzionalak ez die ezer berririk gehitzen hizkuntzen ofizialtasunetik eratortzen diren ondorio juridikoei, “**obligazio**” hori “**gaztelaniari**” dagokiola salbu, Estatu guztian zehar zabaldua dagoen eta irakasten den hizkuntza izanik, ez du axola zein den jendearen auzotasun zibila, ez Konstituzioa onartu baino lehen, ez eta onartu ondoren.

2.3. Lurralde bateko berezko hizkuntza

Autonomia Estatutu batzuetan, eta bertako hizkuntzei buruzko araudi autonomikoetan, jabetza printzipioa azpimarratzen da. Printzipio honen arabera, Erakunde publikoei autonomia erkidego horretako berezko hizkuntza lehentasunez erabiltzeko aukera ematen zaie. Horrela, Kataluniako Hizkuntza Politikari buruzko 1/1998 Legeko sarreran adierazten da katalana dela bertako berezko hizkuntza, eta, ondorioz, botere publikoek berau babesteko, oro har

erabiltzeko eta maila guztietan bere erabilera sustatzeko obligazioa daukatela. Lege horretako 2. artikulua gehiago sakontzen du: “Katalana, berezko hizkuntza, Kataluniako Erakunde guztien hizkuntza da, eta bereziki Generalitateko Administrazioarena, Toki administrazioarena, korporazio publikoena, enpresa eta zerbitzu publikoena, komunikabide instituzionalena, irakaskuntzakoa eta toponimiakoa”.

Baina bi hizkuntza ofizial dauzkaten autonomia erkidegoetan, jabetza printzipioak ezin izango du ofizialtasun bikoitzaren printzipioa estali. Modulatu bai, jakina, baina ezin izango du hizkuntza bakar baten aldeko printzipio bilakatu, bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egindako egintzek balio eta eraginkortasun juridiko osoa izango dute-eta. Hortaz, hizkuntzen erabilerari dagokionez, Administrazio Publikoek herritarrek aukeratutako hizkuntza ofiziala *ad extra* erabiltzeko eskubidea bermatu beharko dute, hizkuntza hori erkidego horretan berezkoa izan edo ez izan. Baina beste gauza bat da lan harremanetan —edo Administrazioaren *ad intra* harremanetan— erkidegoko barne jarduera administratiboetarako ohiko hizkuntza gisa aukeratzea, aukera hori erabat onargarria baita gure ordenamendu juridikoan, betiere Administrazioko langileak hizkuntzaren aldetik gaituta baldin badaude.

Beraz, orain artekoa laburtuz esan behar da hizkuntza ofizialtasun bikoitzak herritarrek hizkuntza bat aukeratzeko duten eskubidea babesten duela, eta berezko hizkuntzaren printzipioak, berriz, Administrazioaren barne harremanetan lehentasunez erabiltzeko eskubidea aitortzen duela, eta —hala nahi izanez gero— lan hizkuntza eskusiboa izatekoa. Horixe gertatzen da Estatuko Administrazio periferikoan gaztelaniarekin, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren 4/1999 Legeko 36.1 artikulua arabera. Hori bera, baina alderantziz, berezko hizkuntza daukaten autonomia erkidegoetako Administrazioan gerta daiteke. Nolanahi ere, Nafarroako Foru Komunitatearen kasuan jabetza printzipioak ez du gehiegizko garrantzirik, 18/1986 Foru Legeak gaztelania eta euskara, bi hizkuntzak hartzen dituelako Nafarroako berezko hizkuntza gisa.

2.4. Hizkuntzagatik diskriminatzeko debekua

Sistema xteko orduan, garrantzi berezia hartzen du hizkuntzagatik ez diskriminatzeko printzipioak, funtsezko eskubideen muina kontsideratua, hizkuntza ofizial bat aukeratzeko edo exijitzen den kasuen aurrean. Konstituzioko 14. artikuluari dagokionez, guztiz komenigarria zen bertan hizkuntza terminoa sartzea, batik bat nazioarteko adierazpenekin bat etortzeko.



Gogoan izan hala diotela Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak (2.2 art.) eta Giza Eskubideak Babesteko Europar Hitzarmenak (14. art.), Espainiak berrestuak biak.

Baina Konstituzioak ez duenez halakorik aurreikusten, printzipio hori inplizituki ote dagoen barnebilduta galde liteke, esfortzu dialektiko handiegirik gabe ikus baitaiteke Konstituzioko 14. artikulua, beste edozein egoera edo inguruabar pertsonal edo soziali egiten dionean aipamena, ez daukala zerrenda hertsia izateko asmorik. Aipatzen duen inguruabar hori hizkuntza bera izan daiteke, jakina, Konstituzioko 10.2 artikuluaarekin lotuta. Azken honetan adierazten denez, funtsezko eskubideei buruzko arauak Espainiak gai horren inguruan berrestu dituen nazioarteko akordioen arabera interpretatuko dira.

Argi dago printzipio honen ondorioak Estatuko hizkuntza ofizialera nahiz autonomia erkidegoetako hizkuntza koofizialetara zabal daitezkeela, inguruabarren arabera. Nafarroako Foru Komunitatean, zera dio Euskarari buruzko 18/1986 Legearen Atariko Tituluko xedapen orokor batek: "botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntzagatik herritarrek gutxietsiak izan ez daitezen" (3.1 art.).

Diskriminazioa funtsezko eskubideren bat egikaritzera gerta daiteke, esate baterako, funtzio publikoan sartzeko eskubidea egikaritzean. Kasu horretan, hizkuntza koofizialaren balorazioak, bete beharreko lanpostuaren funtzioak betetzeko proportzionatua denean, ez du arazo konstituzionalik sortzen, eta bete beharreko lanposturako gaitasun baldintza gisa hizkuntz koofizial hori jakitea eskatzeak ere ez luke arazorik sortu beharko (AKE 46/1991).

Diskriminazioa, halaber, aukeratutako hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubide publiko subjektibotik erator daiteke. Izan ere, gutxiengo linguistikoen kasuan eskubide hau ez da hizkuntzaren ofizialtasunean bakarrik oinarritzen, baizik eta baita hizkuntza ofiziala ez denean berau sustatu nahi duen legedi autonomikoan (Konstituzioko 3.3 artikulua), edota aipatutako Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 27. artikuluan. Nire ustez, hizkuntza ofizial bat baino gehiago daudenean parekatu egin daitezkeen funtsezko eskubide baten aurrean gaude. Eskubide hori, gainera, ezin da inolaz ere deuseztatu, baizik eta gehienez ere modulatu, Administrazioa zehazki eta botere publikoak orokorki hizkuntza ofizialak jakiteko betebeharrak konstituzionalera egokitu arte. Betebeharrak hori ez da hizkuntza erabiltzearekin betetzen, zeren eta erantzuna aukeratutako hizkuntza ofizialean jasotzeko eskubide konstituzionala ere barnebiltzen du.

Era berean, Konstituzioko 3.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, legediak hizkuntza bat

errespetu eta babes berezia merezi dituen kultur ondare izendatzen duenean —lurralde jakin batean ofizialtasunaren *status*-ik eduki ez arren—, herritarrek legeak babestutako hizkuntza eskubideak egikaritu ahal izango dituzte. Horrela, gutxiengo linguistikoa babesteko edo sustatzeko neurri positibo bereziak hartu ahal izango dira, betiere berdintasun printzipio konstituzionala urratu gabe.

Aurrerantzean, erantzun beharreko galdera nagusia honakoa da: ea nola lotu daitezkeen erkidego elebidun batean dauden hizkuntza eskubide desberdinak, hizkuntza bakoitzak lurralde bakoitzean *status* juridiko desberdina daukala —bakoitzaren egoera soziolinguistikoa ere desberdina izanik, eta euskara biztanle gutxi batzuk bakarrik dakitela— eta hizkuntzagatik diskriminatzeke debekuaren printzipioa. Nafarroako egoera soziolinguistikoko plurala, jakina, beharrezkoa izango da hizkuntza eskubideak hizkuntzagatik diskriminatzeke debekuaren printzipioarekin uztartzeko orduan proportzionaltasun printzipioa kontuan hartzea.

3. Nafarroako legediko gakoak: Foru Hobekuntza eta Euskarari buruzko Legea

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko (LORAFNA) 9. artikulua ezarritakoaren arabera, "gaztelania da Nafarroako hizkuntza ofiziala", eta "euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eremu euskaldunetan". Era berean, "foru lege batek eremu horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta Estatuko legeria orokorra abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du".

Hortaz, LORAFNAREN arabera, argi dago Nafarroan euskararen ofizialtasuna "eremu euskaldunetara" mugatzen dela. Lege organikoak ez du eremu horiek zeintzuk diren esaten; aitzitik, euskararen erabilera ofiziala arautuko duen foru lege bati uzten dio zehazteko ardura. Zalantzarik gabe, arau hori 18/1986 Foru Legea da, nahiz eta bertan ez diren zehatz-mehatz eta espresuki "eremu euskaldunak" aipatzen.

Euskarari buruzko Foru Legea aztertzeari ekin baino lehen, aurrez beste gauza bat planteatu daiteke: ea Konstituzioko 3.2 artikulua —"Espainiako gainerako hizkuntzak ere ofizial izango dira dagozkien autonomia erkidegoetan, berauen Estatutuek ezarritako moduan"— onartzen ote duen hizkuntza autonomiko baten ofizialtasuna Foru Komunitateko zati bakar batera mugatzea. Nire ustez, ikuspegi juridikotik guztiz posible da baiezko erantzuna ematea, baina hipotesi teoriko huts gisa, posible da baita etorkizunean Foru Parlamentuak "eremu

euskaldunak" Foru Komunitate guztira zabaltzeko erabakia hartzea, ondorioz, eta LORAFNAREN beraren arabera, euskararen ofizialtasuna Nafarroa osora zabalduz. Litekeena da norbait aukera juridiko honekin ados ez egotea, baina, nolana ere, aukera honen alde azaldu da Nafarroan euskararen aldeko postulatu maximalistak egitearen susmagarri izango ez den Jaime Ignacio Del Burgo Tajadura foru parlamentari ohia ere. Honela mintzatu zen "Euskarari buruzko Foru Legea" izeneko proiektuari buruzko debatan: "Nafarroako jendeak hala nahi izanez gero, Nafarroa osoa izan daiteke eremu euskaldun" (Nafarroako Parlamentuaren 1986ko azaroaren 4ko Bilkura Egunkaria, 21. or.). Horretarako, aski izango liriteke Foru Parlamentuko 26 boto; hau da, lege bat gehiago absolutuz onartzea.

Ez da ahaztu behar Nafarroako Parlamentuak 1980ko azaroaren 3an euskararen ofizialtasuna Foru Komunitate guztira zabaltzen zuten adierazpen bat onartu zuela. Honela zioen:

1. Nafarroako hizkuntza ofizialak gaztelania eta euskara izango dira.
2. Printzipio hau Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeteari buruzko Oinarrietan jasoko da, eta baita Foru Parlamentuak lege baten bidez arautzeko eskuduntza osoa ere".

Aipaturiko Del Burgo Tajadura foru parlamentariaren esanetan, adierazpen hori "gehiengo itzelik" lortu ez zuelako gelditu zen LORAFNAN sartu gabe, aurka bozkatu baitzuten UCD eta UPNko parlamentariak (Foru Parlamentuaren 1986ko azaroaren 4ko Bilkura Egunkariako 34. orrialdean ikus daiteke azalpena).

Hala ere, Nafarroako egoera soziolinguistikoa ikusita, argi dago euskararen ofizialtasuna Foru Komunitate guztira zabaltzeko oso balio sinboliko garrantzitsua izango lukeela, juridikoki modulazio asko beharko lituzkeen arren (ziurrenik, Valentziako Erkidegoan irakaskuntzaren arloan dauden antzekoak, Administrazioan zerbitzuak euskaraz eskaintzeko aukera egoera soziolinguistikoari zuzenean lotuta egonik), eta horrek gutxi aldatuko lituzke egungo araudiaren materialtasun eta aukerak. Beraz, Nafarroan euskararen ofizialtasunari buruzko debate interesgarri hori alde batera utzita —baina sakralizatu eta nominalista hutsa bihurtuz gero antzu bilakatzeko arriskua daukana—, ikuspegi praktikoa batetik garrantzitsuena euskaldunen hizkuntza eskubideen berme maila zehaztea da, betiere kontuan izanik LORAFNAK Foru Komunitateko lurraldeak geroan "eremu euskaldun" deklaratu ahal izateko aukera ematen duela.

Gaur egun hiru eremu linguistikotan banatzen du Nafarroa Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak: lehenengoa, eremu "euskalduna" delakoa —

eremu bakar bat hartzen duena, eta ez "eremu batzuk", LORAFNAK dioen bezala—; bigarrena, "eremu mistoa", "elebidun" dezente biltzen dituena, eta, azkenik, eremu "ez-euskalduna", non baden "elebidun" kopuru txiki bat ere. Euskarari buruzko Foru Legearen inguruko eztabaida parlamentarioan, zera adierazi zuen Cabasés Hita foru parlamentariak: "elebidunak ez dira eremuak, pertsonak baizik, eta pertsonak eremu batetik bestera mugitzen dira... Eremuek hitzik egingo balute, eremu euskaldunek euskararen existentzia aintzatestuko lukete, hain zuzen ere toponimoak direlako euskarak Nafarroan duen presentzia historikoa berresten dutenak" (1986ko abenduaren 1eko Bilkura Egunkaria, 27 eta 36. orr.).

Biztanleriaren Erroldatik ateratako datu soziolinguistiko ofizialek aditzera ematen dutenaren arabera, azken urteotan asko hazi da elebidunen kopurua, batik bat euskarazko irakaskuntzak gora egin duelako (D eredua) edota ikasgai bezala ikasten delako (A eredua). Kontuan izan 1999-2000 ikasturtean Nafarroan eskolatu ziren haurren %57ak D edo A eredua aukeratu zuela (1334 eta 1324 ikaslek, hurrenez hurren), eta gainerakoek osoki gaztelaniazkoa den G eredua (1488 ikaslek). Zehazki 1996ko Biztanleriaren Erroldan ikus daitekeenez, guztira 297 biztanle dituzten Nafarroako lau udalerritan baino ez dago elebidun bakar bat ere (Olejúa, Piedramillera, Ucar eta Petilla de Aragónen; azken udalerrri hau Aragoiko Autonomia Erkidegoan dago).

Bestelakoan, Nafarroako Gobernuak egindako azterketa soziolinguistiko bat argitaratu berri da —nahiz eta ez dituzten 16 urtez beherakoen datuak kontuan hartu; hain zuzen ere irakaskuntzaren ondorioz elebidunen diren gazteei buruzkoak—, eta, bertan adierazten denez, nafarren hamarretik bat elebiduna da, hamarretik beste bat elebidun hartzailea, eta gainerakoa (hots, biztanleriaren %80) erdaldun elebakarra da (*vid.* "Nafarroa. Euskararen Jarraipena II, 1996, Iruña, Nafarroako Gobernuak, 1998). Eremu euskalduneko egoera, noski, desberdina da, bertan erdaldun elebakarrak %32'7 baitira, eremu mistoan %81'6, eta eremu ez-euskaldunean %93'2.

Halaber, Nafarroako Gobernuak prestatutako azken azterketa ofizial honetako "ondorio nagusien artean" jasotzen denez, 1991tik 1996ra bitartean "Nafarroako biztanleek asko aldatu dute euskararekiko jarrera. Gaur egun, biztanleen %68k errespetua agertzen diote euskarari, eta hori pozgarria da, guztiontzat etorkizun oparagoaren seinale delako". Nafarroako Gobernuaren argitalpen ofizial honetako 29 eta 30. orrialdeetan xehetasun handiagoarekin esaten denez:

"Oro har, oniritzirik handiena lortzen duten neurriak gazteenak euskalduntzea bilatzen dutenak dira (%38k, eskola-adineko umerik

izanez gero, euskarazko D eredura bidaliko lituzkete, eta %30k euskara ikasgai duen gaztelaniazko A eredura). Halaber, Administrazio Publikoa euskalduntzearen aldeko jarrera ere garrantzitsua da (%56k ontzat jotzen dute "administrazio publikoan lan egiteko euskaraz jakin behar dela"), eta berdin gertatzen da euskara komunikabideetan sartzearekin (%43k diote "irritati eta telebista guztiek askoz saio gehiago izan beharko lituzketela euskaraz")... Euskararen ikaskuntza eta erabilera bultzatzeko neurrien aldeko jarrera desberdina da eremu linguistiko batetik bestera. Izan ere, eremu euskaldunean biztanle gehienak (%78) alde daude, eta oso gutxi dira aurka daudenak (%5). Eremu mistoan, erdia baino pittin bat gutxiago (%44) alde dago eta laurdena (%23) aurka. Eta eremu ez-euskaldunean, erditik gora (%53) aurka dago eta gutxiengoa (%18) alde".

Euskarari buruzko Foru Legearen eduki juridikoa aztertzeari ekiteko, ez dugu euskarak Nafarroan izan duen historiari begirada bat botatzen hasi beharrik, zorionez lan hori J.M. Jimeno Jurío historialari nafar ospetsuak bi azterlan bikainetan dagoeneko egina duelako ("**Navarra. Historia del euskera**", Tafalla, 1997; eta "**Historia de Pamplona y sus lenguas**", Tafalla, 1995). Aipatutako bi liburu horietako lehenengoan, beste gauza askoren artean, "XVI. eta XVII. mendeetan zehar Nafarroako ia Erreinu osoaren eta Iruñako elizbarrutiaren euskaltasuna espresuki adierazi" zuten agirien eta "kalitate sozial" desberdineko pertsonen lekukotzaren berri ematen du (139. or.). Halaber, gaztelaniaren pixkanakako aurrerapena ere aztertzen du, "zeina, XVIII. mendean, euskararen aurkako neurrien ondorioz, bizkortu egin zen", nahiz eta XIX. mendean hasieran Iruña inguruko biztanleak oraindik "euskaldunak eta gehienbat elebidunak" ziren. Jimeno Juríok adierazten duenez, bigarren gerra karlista hasi baino pixka bat lehenago "Leandro Olivier Iruñako udal artxiboa zuzentzeko heldu zen, eta honek idatzi zenez, barra-barra hitz egiten zen euskara Carmen, Nabarrera eta Santo Domingo kaleetan, eta denda guztietan gutxienez elebidun bat egoten zen" ("**Historia de Pamplona y de sus lenguas**", aip. 203-204 orr.).

Gaurkotasunera itzuliz, Nafarroako Gobernuak prestatutako aipatutako azterlan soziolinguistikoa (1998an argitaratua, 29. or.) adierazten denez, "nafarren ia herena (%30) irakaskuntza sistematik kanpo euskara ikasten edo hobetzen saiatu da", bi izan direlarik hori egitera bultzatu dituzten arrazoi nagusiak: "kultur sustraiak berreskuratzea (%35), eta euskara Euskal Herriko hizkuntza izatea (%32)".

Alderdi guztiz juridikoetara joz gero, gogorarazi behar da 1986an onartu zela Euskarari

buruzko Foru Legea, eta honek eremu euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna bereizten dituela. Baina maiz ahaztu egiten da Legea Alderdi Sozialistaren ekimenez onartu zela, eta proiektuari osoko hiru zuzenketa aurkeztu zitzaizkiola (1986ko azaroaren 4ko NPAOko 60. zenbakian ikus litezke bere edukia eta proposaturiko testu alternatiboa). Osoko zuzenketetako batek Nafarroa osora zabaltu nahi zuen euskararen koofizialtasuna (Euskal Talde Parlamentario Nazionalistak/Grupo Parlamentario Nacionalista Vascok aurkeztutakoak). Beste bi osoko zuzenketek argudiatzen zuten Proiektua ez zitzaiola LORAFNari egokitzen (Talde Popularra/Grupo Popular), edo ez ziola LORAFNari jarraitzen, "izendapen desegokiak erabiltzeagatik, hizkuntzaren izendapenari ez egokitzeagatik, euskara ofizial non den zehazterakoan ambigua izateagatik, eremu euskaldunetarik kanpo euskararen erabilera ofiziala iradokitzeagatik, 13/1982 Legearekin bat ez datozen eremu "euskaldun" eta "mistoak" ezartzeagatik, hizkuntza aukeratzeko borondate printzipioa behar bezala ez bermatzeagatik, eta euskara irakaskuntza planetan errealitate soziolinguistikoari muzin egiten sartzegatik" (UPNko Talde Parlamentarioa).

Gauza jakina da osoko zuzenketa hauetako bat bera ere ez zela onartu. Legea gehiengo absolutuz onartu zen, baina ez zuen ez UPNren, ez euskal nazionalisten aldeko botoirik jaso (gainera, kontuan izan behar da HBko Talde Parlamentarioak ez zuela debateetan parte hartu ere egin, eta onarpen prozesuan ere ez). Euskal nazionalistek Nafarroa osorako ofizialtasun deklarazio esplizitua exijitzen zuten, baina ez zuten halakorik lortu. UPNko bozeramaileak zera adierazi zuen Lege proiektuaren azken irizpenari emandako botoaren inguruan: "Lege hori ez da gurea, ez baititu gure osoko zuzenketaren eta testu alternatiboaren postulatuak onartzen" (1986ko abenduaren 2ko Bilkura Egunkaria, 38 eta 39. orr.). Zehazki, honela mintzatu zen:

"Azken Irizpenaren edukia aztertuz gero, argi ikus daiteke proiektuaren edukiarekiko desberdintasunak dauzkala. Baina atzo bertan 16. artikuluari buruz esan nuen bezala, desberdintasun batzuk formal hutsak dira, ia semantikoak, eta ez diote Taldearen osoko zuzenketa motibatu zuen oinarriari eragiten. Gure osoko zuzenketako puntuak ikusiz gero, esan beharko genuke Irizpenak onartu egin dituela 1 eta 2 puntuak, Legearen izen desegokiari buruzkoak. Ez du "Ley del euskera" esaten, baizik eta "Ley del Vasceance". Ez naiz horren inguruko nominalismoan sartuko, zeren bi izendapenek balio osoa daukate, eta testua egina izan den hizkuntzan, gaztelanian, ere bai. Berehala amaituko dut, lehendakari jauna. Eduki ofizialaren aldetik ambiguo samarra zela esaten da 3. puntuan. Baina ambiguetate hori gainditu egin da Legearen errotoletan, zati batean

erabilera ofizialari buruz hitz egiten delako, eta beste zatian, berriz, erabilerrari buruz, baina neurri handi batean aurreko edukia mantentzen du. Horrek, Talde batzuren iritzian, ofizialtasunera hurbiltzen zuen, eta beste batzuren iritzian ez zuen ofizialtasunik adierazi nahi. Eremuen irizpidea mantendu egin da. Gure Taldea horren aurka zegoen, ez zelako LORAFNaren 9. artikuluan oinarritzen. Baina gure Taldeak defendatzen zuen borondatezkotasun printzipioa errespetatu egin da, eta errespetatu bakarrik ez, zeren gainera indartu egin dira borondatezkotasuna eta progresibitatea. Ez ditut artikulua guztiak aipatuko, baina bai esango dudala guztira 9 direla borondatezkotasun hori aipatzen duten artikulua, eta hori Irizpenaren ekarpen guztiz positibo bat da”.

Zer xedatzen du bada azkenean Euskarari buruzko Legea (gaztelera, Ley del Vascuence) izena hartu duen legeak? [Honi dagokionez, eta gai honek hainbat nafarrengan sorrarazten duen krispazio eta irrazionaltasuna ulertzeko paradigma gisa, gogorarazi behar da Real Academia Españolaren Hiztegiak onartu egiten duela gaztelaniaz “eusquera” nahiz “eusquera” terminoak “vascuence”-ren sinonimo gisa erabiltzea. Nolanahi ere, Foru Parlamentuan eztabaidarik sutuenetarikoa piztu zuen gaia, Legeari eman beharreko izena izan zen. Gaur egun Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria den R. Gurrea Induráin jauna arategatu egin zen, Proiektuak “36 aldiz zerabilelako euskera hitza. Vascuence hitza deskuiduz, nahastuta edo sinonimiagatik bederen ere aipa zezakeen... Baina ez du erabili, ez duelako nahi, eta ez zaiolako sinonimoa erabiltzea interesatzen... Esan dezala Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza horri euskera izena ematen diotelako erabiltzen duela hitz hori, eta kito. Baina guk hizkuntza horrek Nafarroako Foru Komunitatean vascuence izena duela esaten jarraituko dugu” (Nafarroako Parlamentuko 1986ko azaroaren 4ko Bilkura Egunkaria, 49. or.).]

Bada, Euskarari buruzko Legeak, bere “Xedapen Orokorretan” ezartzen duenaren arabera, Legeari xedea “euskararen erabilpen normal eta ofiziala arautzea da, gizarte elkarbizitzaren arloan nahiz irakaskuntzan”. Bere helburu nagusien artean, honakoak aipatzen dira: “a) herritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidea babestea, eta eraginkor bihurtzeko tresnak zehaztea; b) Nafarroan euskararen berreskurapen eta garapena babestea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz; eta c) euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraiki, Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera”. Era berean, aipatu bezala, “botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntzagatik herritarrak gutxietsiak izan ez daitezen”.

Zehatz esanda, Lege honek *euskaldun* izendatzen duen eremuan, herritar guztiek botere publikoekin eurek aukeratutako hizkuntzan (hau da, euskaraz edo gaztelaniaz) erlazionatzeko eta hizkuntza horretan atentituak izateko eskubidea daukate. Hori dela-eta, egoitza eremu euskaldunetan duten Administrazio Publikoek eta enpresa publikoek langileak zerbitzua euskaraz eman ahal izateko gaitzen joan daitezela sustatuko dute, eta Administrazio bakoitzak zehaztuko du zein lanposturako izango den nahitaezkoa euskara jakitea, gainerakoetarako merezimendu kualifikatutzat hartuko delarik. Bestetik, hezkuntza maila ez unibertsitarioetan derrigorrez irakatsi behar dira euskara eta gaztelania, oinarritzko eskolatzeari amaitzean ikasleek bi hizkuntzetan aritzeko moduko maila izan dezaten.

Bigarren, *eremu mistoa* delakoan –LORAFNan oinarrituz Talde Parlamentario Popularrak eta UPNk Legeari tramitazioan ezezkoa eman ziotena (*vid.* 1986ko abenduaren 1eko Bilkura Egunkaria, 18 eta hurr. orr.)–, Euskarari buruzko Legeak “Nafarroako Administrazio Publikoek zuzentzerakoan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko” eskubidea ematen die herritar guztiei. Era beran, “eskubide honen erabilera bermatzeko, aipatutako Administrazioek honako hau egin dezakete: a) urteroko lanpostuen eskaintza publikoan euskaraz jakitea zein lanposturako izanen den nahitaezko zehaztu; b) gainerako lanpostuak betetzeko deialdietan euskara jakitea merezimendu gisa baloratu”. Beste alde batetik, “euskara irakaskuntzan gradualki, progresiboki eta nahikotasunez sartuko da, ikastetxeetan eskatzen dutenentzako euskarazko irakaskuntza duten ereduak sortuz”. Gainera, “hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan euskara irakatsiko zaie nahi duten ikasleei, oinarritzko eskolatzeari bukaeran euskararen ezagupen nahikoa izan dezaten”.

Azkenik, *eremu ez-euskalduna* delakoan, “herritarrek Nafarroako Administrazio Publikoek euskaraz zuzentzeko eskubidea daukate”. Baina aipatutako Administrazioek “gaztelaniazko itzulpena eskatu ahal izango diete interesatuei” edota, bere kasuan, Nafarroako Gobernuak Iruñan sortu behar duen euskara-gaztelania itzulpen ofizial zerbitzuko unitate administratiboa erabili ahal izango du. Hezkuntzari dagokionez, Legeak dio eremu ez-euskaldun honetan botere publikoek euskararen irakaskuntza bultzatuko dutela eta, hala behar izanez gero, osoki edo partzialki finantzatuko dutela, sustapen eta promozio irizpideei jarraiki eta eskariaren arabera.

Nafarroako egungo legediaren gako zehatzekin amaitzeko, adierazi beharra dago legitimoki eztabaidagarria dela Euskarari buruzko Legea LORAFNaren aurreikuspen estatutarioei egokitzen ote zaien, hiru hizkuntza eremuren banaketa egin eta bakoitzerako hizkuntza eskubideak finkatzerakoan. Gainera, gehiago

parlamentarioen jokoaren arabera, etorkizunean Legearen edukia aldatu egin daiteke, jakina. Nolanahi ere, uneotan juridikoki inolaz ere egin ez daitekeena, *per saltum* LORAFNari Legea garatzen duen Dekretu bat lotzea da. Ezin da, ezta, edukiaren aldetik Euskarari buruzko Legeak xedatutakoari egokitzen ez zaion erregelamendu mailako araurik onartu. Beraz, orain aztertu behar dena da legaltasunaren ikuspuntutik abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren edukiak baliozkotasun juridikorik ba ote duen, eta Euskarari buruzko Legean zein LORAFNan xedatutakoari egokitzen ote zaion.

4. Abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren legaltasunaren azterketa eta balizko kontrol juridikzionala

Aurreko guztia, 372/2000 Foru Dekretua indarrean sartu izanak sortzen dituen arazoak ulertu ahal izateko sarrera bat baino ez da. Bere edukia xehetasunez aztertzen hasteko, komenigarria da –egituraren aldetik dauzkaten antzekotasun eta berdintasunak direla-eta– gai honen inguruan aurrez onartu diren bi Foru Dekretuei, behar denean, aipu egitea, edukiaren aldetik dauzkaten desberdintasunak azpimarratuz, eta baita ere 2000ko ekainaren 19an Nafarroako Gobernuak onartutako Foru Dekretuaren Proiektuko gakoetan sakontzea ere, Nafarroako Kontseilu Kontsultiboak azaroaren 6an onartutako 44/2000 Irizpenaren ondorioz bertan egindako aldaketekin batera. Foru Dekretuaren legaltasuna aztertzerakoan, arazoak azaltzeko orduan banan-banan aztertuko ditut lortu nahi dituen helburuak, zioen azalpena, xedapen orokorrak eta hizkuntza eremu bakoitzerako (euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna) araudi propioa. Horren guztiaren ondoren, laburpen gisa, nire ustez juridikzionalki kontrolagarriak diren xedapenak zeintzuk diren zehaztuko dut, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Areto Kontentzioso-Administratiboaren aurrean ipin daitekeen helegitearen ostean.

Arrazoi sistematikoengatik, eta azalpena bera argiagoa izan dadin, oro har bereiztu egingo ditut batetik Foru Dekretu berriaren legaltasuna (1), eta bestetik juridikzionalki kontrolagarriak diren xedapenak, zuzenbide osoz deusezak direla presumitzeagatik (2).

4.1. Foru Dekretu berriaren legaltasunaren azterketa

4.1.1. Lortu nahi diren benetako helburuak

Harrigarria dirudien arren, Foru Dekretu berria aurrekoekin alderatuz gero, oso antzekoak eta, aldi berean, oso desberdinak direla ikus

daiteke. Paradoxa honek badu azalpenik: berdinak dira titulu, kapitulu, sekzio eta artikulatuaren egituraren aldetik –lehentxeago aipatu bezala–, baina erabat ezberdinak dira hainbat sailen edukiaren aldetik. Foru Dekretu berrian, esplizituki agertzen ez den ildo bat dago –zioen azalpenean ere moztortuta dagoena–, UPN Talde Parlamentarioak Euskarari buruzko Legea prestatzeko prozesuan postulatutako tesiak erregelamenduz jasotzeko asmoa duena. Euskarari buruzko Legearen azken irizpenari emandako botoaren inguruan emandako azalpenean UPNk adierazten zuenez, honakoa “ez zen bere Legea”, nahiz eta orain “bere Foru Dekretua” ipini nahi duen martxan, Foru Legean xedatu eta onartutakoa edozer izanik ere.

Zeintzuk dira UPNren Gobernuak bultzatutako Foru Dekretu berriak dauzkan eta esplizituki agertzen ez diren helburu horiek? Bada, koherentzia politikoagatik, Euskarari buruzko Legeari aurkeztutako osoko zuzenketan motibazio gisa agertzen ziren berberak direla suposatzen da. Zehazki, zera zioen UPNk Euskarari buruzko Legeari buruz: “anbigua da euskarak ofizialtasuna non duen esaterakoan, eremu euskaldunetatik kanpo euskararen erabilera ofiziala dela iradokitzen du, eta 13/1982 Legean aurreikusitakoarekin bat ez datozen eremu <<euskaldun>> eta <<mistoak>> finkatzen ditu”, Lege horrek eremu euskaldunetz bakarrik hitz egiten du-eta (LORAFNako 9. art.). Dagoeneko aipatu den bezala –*supra* III. atala–, UPNren ustez “formal hutsak eta praktikoki semantikoak” ziren Euskarari buruzko Legearen azken irizpenean sartutako hobekuntzak, eta “ez zioten inolaz ere eragiten” bere osoko zuzenketen motibazioaren funtsari.

Euskarari buruzko Legeak finkatutako ildoak zuzentzeko, UPNren iritzian Foru Dekretu berriak garbi adierazi behar du euskara non den ofiziala [eremu euskaldunetan eskusiboki, baina, adibidez, ez da esaten euskararen erabilerak balio eta eraginkortasun juridiko osoa ote dauzkan –hots, ofiziala ote den– eremu mistoan ere, Administrazioari zuzentzeko besterik ez bada ere (Euskarari buruzko Legeko 17. art.)], eta, praktikan, eremu mistoko Administrazio Publikoen eraentza juridikoa Euskarari buruzko Legean eremu ez-euskaldunerako aurreikusitako eraentza juridiko berdinerantz bideratu nahi da, argi eta garbi. Horrela, *de facto* desagertu egingo litzateke eremu mistoko eraentza juridiko espezifikoa, eta Foru Dekretua (“Nafarroako Administrazio Publikoetan *euskararen erabilera* arautzen duena”), “eremu ez-euskaldunetan derrigorrean gaztelaniaren erabilera eta eremu mistoan gaztelaniaren erabilera ia eskusiboa arautzen duen” Foru Dekretu bihurtuko litzateke.

Foru Gobernuak Foru Dekretua 2001eko urtarrilaren 5ean, ostirala, NAO n argitaratu eta –bere bigarren azken xedapenak dioen bezala–

egun horretan bertan indarrean sartu zenetik lortu nahi izan dituen benetako helburuak zeintzuk ziren argi gera zedin, urtarrilaren 8an, astelehena, "Euskarari buruzko Foru Dekretu berria eremu mistoan kokatutako Foru Administrazioan eta bere organismo autonomoetan aplikatzeko Ekintza Plan bat" onartu zuen. Plan honi ere arau maila eman zitzaionez, ofizialki argitaratu zen (2001eko urtarrilaren 19ko NAO). Nafarroako Gobernuaren Interneteko orrian (<http://www.cfnavarra.es>) honako prentsa ohar ofizial hau irakur daiteke Foru Gobernuaren Erabakiari buruz: *Gobernuak Euskarari buruzko Foru Dekretu berria Eremu Mistoko Foru Administrazioan eta bere Erakunde Autonomoetan aplikatzeko Ekintza Plan bat onartu du. Documentación: Doc. Word: 0801pr88.doc*. Bestetik, zera dio Lehendakaritza, Justizia eta Barne Sailaren atalak:

"Nafarroako Gobernuak "Euskararen erabilerari buruzko araudia eremu mistoan aplikatzeko Ekintza Plana" onestu du gaur goizean (2001eko urtarrilaren 8), Euskarari buruzko Foru Dekretu berria Nafarroako Foru Komunitatean eta bere erakunde autonomoetan aplikatzeko (Dekretu hau urtarrilaren 5ean, ostirala, sartu zen indarrean).

Planaren koordinazioa, Nafarroako Gobernuko presidenteordea eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria den Rafael Gurra Induráin esku gelditzen da. Planak hiru atal nagusi dauzka: erakunde eta instituzioen irudia, herritarrentzako zerbitzuak eta lanpostuen horniketa.

Nafarroako Gobernuko erakunde eta instituzioen irudiari dagokionez, gaur goizean onetsitako Planak berehala hartuko diren neurri hauek jasotzen ditu:

- seinalizazioa, errotuluak eta zigilu ofizialak: gaztelania hutsez idatziko dira, eta esandakoa betetzen ez dutenak berehala kenduko dira.
- bideetako seinaleak: Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Nafarroako Gobernuaren kontrolpekoak edo jabetzakoak diren bideetako seinaleak gaztelania hutsean errotulako ditu, eta esandakoa betetzen ez dutenak lehenbailehen kenduko dira.
- argitalpenak, iragarkiak eta publizitatea: gaztelania hutsean emanen dira. Salbuespen gisa, argitalpenaren kontseilari arduradunak idatziz espresuki aginduko balu, elebiduna izan liteke.
- inprimaki eta paperak: Nafarroako Gobernuaren paper guztietako burualde eta idazpuruak gaztelania hutsean erabiliko dira, baina herritarrek erabili beharreko inprimaki ofizialen kasuan, bi

argitalpen eginen dira: bata gaztelania hutsean, eta beste bat elebiduna, espres eskatzen duen herritarrak erabil dezan.

Herritarrentzako zerbitzuei dagokienez, Ekintza Planak dio gaztelania hutsean eginen direla Nafarroako Gobernuaren agiri, jakinarazpen eta komunikazio guztiak. Baina Departamentu bakoitzeko kontseilariaren esku dago dokumentu elebidunak egiteko baimena ematea, betiere eremu euskaldunean hasitako administrazio prozedurak baldin badira. Nolanahi ere, jatorrizko agiria gaztelera emango da, eta Departamentuak berak izango du euskarara itzultzeko ardura, eta, posible ez balitz, Nafarroako Gobernuko Itzulpen Unitateak (Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren barnean dago, Aldizkari Ofizialaren Zerbitzuan hain zuzen).

Giza baliabide egokiak dauden unitate organikoetan, halaber, kontseilari arduradunek baimena eman lezakete euskarazko atentzioa eskatzen duen herritarrari halakoa emateko. Norbaitek atentzio hori eskatu baina departamentu horretan hori eman dezakeenik ez badago, aipatutako Itzulpen Unitatearen laguntza eskatu ahal izango da.

Bukatzeke, Ekintza Planak Nafarroako Gobernuko lanpostuen horniketa ere aurreikusten du. Itzulpengintza eta irakaskuntzako lanpostuetarako deialdi publikoetara mugatzen du euskara nahitaez jakin beharra. Euskara eta beste hizkuntza batzuk proba hauetan merezimendu gisa baloratzearen kasuan, euskara jakitearen ziurtagiri ofiziala aurkezten dutenentzat gehienez jota merezimenduen baremoak guztira duen puntuazioaren %5,25eko balioa emango zaie, eta %5ekoa frantsesa, ingelesa eta alemanaren kasuan (titulazio horiek ez dauzkatenentzat, Hizkuntza Eskola Ofizial batean gainditutako ikastaro bakoitza edo baliokidea, eta Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaro ofizialetan gainditutako urrats bakoitza proportzionalki baloratzeko baremo bat ere onesten da. NAPIri dagokio aipatutako hizkuntzen ezagutza baloratzeko probak antolatzea; bost zailtasun maila finkatzen dira, eta horietako bakoitzak hizkuntza bakoitzerako ezarritako gehieneko puntuazioaren 1/5 balioko du).

Foru Dekretuaren Proiektuaren beste helburuetako bat, halaber, eremu euskaldunean lehenasuna gaztelaniari ematea zen, baina Nafarroako Kontseilu Kontsultiboak 2000ko azaroaren 6ean emandako Irizpenean artikulua horiek ordenamendu juridikoarekin bat ez zetozela adierazi zuen –nagusiki, lege estaldurarik ez edukitzeagatik– eta, honi dagokionez, Foru Dekretu berriak Nafarroako Kontseilu Kontsultiboak arrazonatutako preskripzioak jaso ditu.

Zioen Adierazpena

Foru Dekretuaren Proiektuari buruz Nafarroako Kontseilu Kontsultiboak emandako Irizpenean esaten denez:

“Segurtasun juridikoaren printzipioak, xedapen orokorretako Zioen Adierazpenek –beste gauzen artean– xedapen horien edukiaren ildo nagusiak zeintzuk diren aipatzea aholkatzen du, irakurleak, irakurtzerakoan, bertan azaltzen diren alderdi nagusiei buruzko ideia orokor bat izan dezan. Kasu honetan, eta ikuspuntu juridikotik, esan daiteke –nahiz eta ez den ilegaltasun zio bat, baizik eta Zuzenbidearen ziurtasun exijentzia behar bezala bete ez izana– Foru Dekretuaren Proiektuaren Zioen Adierazpena ez dagoela behar bezala osatua, eta, ondorioz, ez dituela ordenamenduari egiten zaizkion berrikuntzak garbi azaltzen. Arauak sortzerakoan segurtasun juridikoaren printzipioa behar bezala bete dadin, sarreran xehetasun handiagoarekin adierazi beharko da erreformaren nondik norakoa; bestela, hobe litzateke neurri bat bera ere ez aipatzea, eta Foru Dekretuaren helburu orokorrak aipatzera mugatzea, bata aipatzea eta besteak ez aipatzeak irudi okerra eman baitiezaioke Zioen Adierazpenaren irakurleari”.

Nafarroako Kontseilu Kontsultiboaren errekonbertsio honen ondorioz, aldaketak egin ziren Foru Dekretuko Zioen Adierazpenean. Ondorioz, eremu euskaldunean aplikatu beharreko neurri ugari finkatzen dira –berrikuntza gehiegirik ez dakarten arren–, baina eremu mistoan eta ez-euskaldunean sartu nahi diren neurri murrizkorrei inolako aipurik egin gabe. Horrek, jakina, araudiaren aldaketaren benetako asmoa estaltzen du.

Gainera, 70/1994 eta 135/1994 Foru Dekretuetako Zioen Adierazpenei dagokionez –sarrera berbera daukate biek–, bada bukaerako testuan agertzen ez den baina balio sinboliko handia duen kontu bat: Hizkuntza Erregional eta Gutxituen Karta Europarrari egiten zitzaion aipamen berezia, Espainiak 1992ko azaroaren 5ean sinatu arren oraindik berresteke dagoena. Honi dagokionez esan beharra dago Senatuak, talde parlamentario guztien oniritziarekin –eta testua berrestu zuten hainbat Estatutan indarrean sartu ostean– Gobernuari pauso horiek eman zitza eskatzeko erabakia hartu zuela, ofizial deklaraturako hizkuntzei ere aplikatu ahal izateko –beste autonomia erkidegoen artean, espresuki aipatzen da Nafarroako Foru Komunitatea (BOCG, Senatu, I Seriea, 1998ko martxoaren 23a)–. Ministroen Kontseiluak, halaber, 2000ko ekainaren 9an egindako bileran, Hizkuntza Gutxituen Karta Europarrari buruzko espediente onartu zuen, eta bere ebazpenean adierazten denaren arabera, testua 2000ko uztailaren 12an bidali zen Diputatuen Kontseilura (*vid.* honi dagokionez, BOCG, Senatu, 2000ko irailaren 15ekoa, 107. or.).

Azken honi dagokionez, gogoan izan behar da Nafarroako Parlamentuak –*Grupo Parlamentario Convergencia de Demócratas de Navarra* taldearen ekimenez– Euskarari buruzko Foru Legea Hizkuntza Gutxituen Karta Europarrera egokitzeko Mozio bat aztertu duela, Espainiako Erreinuak Karta hau berresteko aukeraren aurrean (*vid.* 1998ko maiatzaren 14ko NPAO). Beraz, logika juridikoaren ikuspegitik are ulertezinagoa da aipatutako Foru Dekretuetako Zioen Adierazpenean egiten zen erreferentzia kendu izana.

Esandakotik, jakina, ezin da Zioen Adierazpenean ilegaltasunen bat dagoela ondorioztatu, baina, Nafarroako Kontseilu Kontsultiboak esan bezala, behin betiko testuari oraindik ere “Zuzenbidearen ziurtasun printzipioa behar bezala bete ez izana” lepora dakioko, Foru Dekretuaren bidez sartu nahi diren aldaketen irudia distortsionatuta ematen duelako, batik bat Dekretua argitaratu eta hurrengo lanegunean Foru Gobernuak eremu mistorako ekintza plan bat –aipatu bezala– onetsi duenean. Hain zuzen ere erreformaren helburu nagusia da Plana, eta premia handiena duena gainera, R. Gurra Induráin Foru Gobernuko presidenteordearen hitzetan. Kontuan izan Gobernuko presidenteordea gaia ondo ezagututa mintzo dela kasu honetan, zeren eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko buru den heinean –372/2000 Foru Dekretuko lehenengo azken xedapenak dionari jarraiki–, bera da Administrazio Publikoetan euskararen erabilerari buruzko Foru Dekretu hau “exekutatzeko behar adina xedapen onesteko” eskuduna. Harrigarria bada ere, horrek esan nahi du Hezkuntza eta Kulturaren Departamentuak –bertan sartzen dela 228/2000 Foru Dekretuak sortutako Unibertsitate eta Hizkuntza Politikaren Zuzendaritza Nagusia, 2000ko ekainean aurrez zegoen Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusia deuseztatu ostean–gai honetan ez daukala eskuduntza zuzenik.

Azkenik, ikuspegi formaletik Zioen Adierazpenean ez zaio Nafarroako Euskararen Kontseiluaren nahitaezko txostenari aipamenik egiten. Gogoan izan martxoaren 11ko 135/1996 Foru Dekretuak Nafarroako Gobernuari hizkuntza normalkuntzaren inguruan aholkatzeko, parte hartzeko eta proposamenak egiteko sortu zuela Nafarroako Euskararen Kontseiluaren organo kolegiatua. Honela dio Foru Dekretuko sarrerak:

“Nafarroako Foru Komunitatea, abenduaren 15eko 18/1986 Euskarari buruzko Legeak eta Lege hau garatzen duten beste arauak erregulatutako hizkuntza normalkuntzarako prozesu batean dago murgilduta, eta, beste helburuen artean, Nafarroan euskararen berreskurapena eta garapena babesteko xedea du. Era berean, bere erabilera sustatzeko neurriak ere zehazten ditu.

Baina hizkuntza normalizatzeko halako prozesu batek ezin izango ditu finkatu dituen helburuak bete, baldin eta, botere publikoen jarduerarekin batera, euskararen alde diharduten eta euskara gizartean txertatzeko hain lan garrantzitsua egiten ari diren organismo, erakunde eta pertsonak ez baldin badira paraleloki parate hartzeko inplikatzeko.

Helburu hori lortzeko, organo misto bat sortuko da, Administrazioak eta Nafarroako gizarteak elkarrekin parte hartu eta eztabaida dezaten botere publikoei hizkuntza normalkuntza osatzen duten alderdi desberdinei buruz aholkatzeko.

Asmo horrekin sortzen da Nafarroako Euskararen Kontseilua. Bertan, gizartean duten mailagatik eta euskararen inguruan egin duten lanagatik proposamenak luzatu, aholkuak eman eta ekimenak aurrera eraman ditzaketen erakunde eta pertsonak egongo dira presente, hizkuntzaren normalkuntza prozesu konplexuari bizitasun handiagoa emateko.”

Nafarroako Euskararen Kontseilua sortzen duen 135/1996 Foru Dekretuko 4. artikulua, beste hainbat funtzioaren artean, honakoa esleitzen dio Kontseilu honi: “hizkuntza normalkuntzari buruzko plan orokorrak eta proiektu araugileak aztertzea, hauek onestuek izan baino lehen”. Hala ere, argi dago Foru Gobernuak ez diola inolako kasurik egin berak sortu duen araudiari. Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Foru Dekretu berria prestatzerakoan ez dio nahitaezko txostenik eskatu Nafarroako Euskararen Kontseiluari, eta hori deuseztasuna sor dezakeen urraperen normatiboa da. Santamaria Pastorrek dioen bezala, “kultura administratibista espainiarrak oso garrantzi txikia ematen die txosteni; laxotasun handiz eskatu eta ematen dira. Baina nahitaezkoa den txosten bat ez eskatzea urraperen normatibo bat da eta, gainera, organo erabakitzaileari arauak ebazteko ezinbestekotzat jo duen iritzi edo datu bat falta zaio. Ezin da tramite huts bat balitz bezala hartu, bere falta *ex post facto* eskatu eta emanez konbalidatu ahal izango balitz bezala (horregatik, LRJAPeko 67. artikulua ez ditu konbalidagarriak diren akatsen artean aipatzen): txostena erabakia hartu baino lehen eman eta hartu behar da kontuan. Berandu emandako txosten bat, adar jotzea besterik ez da.” (*Principios de Derecho Administrativo*, II. liburukia, 2. ed., Madril, 2000, 90. or.). Beraz, Nafarroako Euskararen Kontseiluari ez zitzaionez nahitaezko txostena eskatu, 372/2000 Dekretua zuzenbide osoz deuseza izango litzateke, akats formal hori konponezina izateagatik. Hala azaldu du Auzitegi Gorenaren doktrinak behin eta berriz, xedapen orokorrak onartzeko prozeduran araudia urratzen den

kasurako (*vid. beste askoren artean, adibidez, 1999ko otsailaren 19ko AGE, Azdi. 1385*).

Xedapen Orokorrak

Nafarroako Kontseilu Kontsultiboaren Irizpenak ez du inolako legaltasun arazorik ikusten Foru Dekretuko I. Tituluan, eta egia esan bere edukian ez da Nafarroako Gobernuak aurrez onartu dituen testuekiko desberdintasun handirik antzematen. Legaltasunaren aldetik egin litezkeen oharra alde batera utzita, Titulu honetan deigarrien egiten dena Foru Dekretuaren “funtsezko helburuen” eta helburu horiek betetzeko araudian zehar xedatzen diren neurrien artean juridikoki dagoen alde siderala da –aurrez onetsitako Foru Dekretuak kontuan hartuz gero neurri horiek, hein handi batean, indargabetuta daude, batik bat eremu mistoan–.

Aipaturiko “funtsezko helburu” horien artean, honakoak aurki ditzakegu (372/2000 Foru Dekretuko 1.2 art.):

– “Eremu euskaldunean, berdin erabili ahal izatea hizkuntza ofizial bata zein bestea, lanerako nahiz herritarrari zerbitzua emateko.

– Eremu mistoan, bertako herritarrek beren hizkuntza eskubideak erabili ahal izateko beharrezkoak diren langileak antolatu eta gaitzea.

– Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzu nagusietan, *erabiltzaileari, eskatzen duenean, zerbitzua euskaraz eman ahal izateko behar diren langileak antolatu eta gaitzea.*

Nafarroako Foru Komunitateko zerbitzu nagusiak, zerbitzua Nafarroako biztanle guztiei ematen dietenak direla ulertu behar da, zehazki zein lurraldetan dauden kontuan hartu gabe.”

Bada, helburu horiek lortu ahal izateko, Ekintza Plan bat jarri nahi da abian, batik bat eremu mistoan eta Foru Administrazioaren zerbitzu nagusietan, non itzultzaile eta irakasle lanpostuetara mugatzen den euskara nahitaez jakin beharra. Serioa, beharrezkoa al da euskara jakitea itzultzaileei eta euskara edo euskaraz irakasten duten irakasleei eskatzera mugatzen diren neurriak dauzkan Plan bat? Euskararen erabilerrari buruzko halako Planik ez balego –Legerik ere ez balego–, posible izango al litzateke itzultzaileei eta irakasleei euskara jakin beharrik ez eskatzea? Handitu egingo al da itzultzaileen plantilla, herritarrek euskaraz egiterakoan funtzionarioek ahozko harremanetan itzultzaileak behar dituztenean hauek Administrazioaren zerbitzu nagusi guztietan presente egon daitezkeen?

Honi dagokionez, gogoan izan zer dioen Foru Dekretuaren aipaturiko exekuzio Planak: “giza baliabide egokiak dauden unitate organikoetan, kontseilari arduradunak baimena eman dezake euskarazko atentzioa eskatzen duen herritarrari halakoa emateko” –*a sensu*

contrario, posible al da baimenik ez ematea, Foru Dekretuak berak funtsezko helburu gisa herritarra Foru Administrazioaren zerbitzu nagusietan euskaraz atenditua izan dadila ezartzen duenean?-. Ondoren, zera esaten du: "Norbaitek atentzio hori eskatu, baina departamentu horretan hori eman dezakeenik ez badago, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Itzulpen Unitatearen laguntza eskatzen ahalko da". Geroago izango dugu gai honetara itzultzeko aukera (*infra* E atala); oraingoz nahikoa da esatea Euskarari buruzko Legea garatzen duten Foru Dekretu guztietan funtsezko helburuak literalki berdin-berdin mantentzen diren bitartean, badirudiela 372/2000 Foru Dekretuan eremu mistorako hartutako neurriek abstraditu egiten dituztela helburu horiek, eta gauzaezin bihurtzeko pentsatuta daudela. Kasu horretan ilegaltasun zantzuak izango lituzkete, urratu egingo bailukete Euskarari buruzko Legea. Labur esanda, Ekintza Planek Foru Dekretuan bertan programatutako helburuak izan behar dituzte beti ardatz; bestelakoan, Dekretuari subordinatutako arau edo egintzak izanik, argi eta garbi ilegalak izango liriateke eta, ondorioz, zuzenbide osoz deusezak.

Beste alde batetik, Foru Dekretuko 3. artikulua dioenez, "Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzerakoan, Euskarari buruzko Foru Legean, Foru Dekretu honetan eta osagarri dituen xedapenetan ezartzen den eran eta haien ondoriozko baldintzetan aplikatuko da nahitaezotasun printzipioa, eta halaberean baloratuko da euskaraz jakitea merezimendu gisa". Baina Foru Dekretua eta Legea osatzen dituzten xedapen hauek arau juridiko izan beharko dute; Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko euskararen exigentzia edo balorazioa finkatuko dutenak ezin dute zirkularrak edota publizitaterik gabeko planak izan.

Azken honi dagokionez, gogoan izan Foru Gobernuak 2001eko urtarrilaren 8an onetsitako eta jada maiz aipatutako Ekintza Planak (urtarrilaren 19ko NAO) Nafarroako Gobernuak lanpostuak betetzerakoan euskara baloratzeko arauak finkatzen dituela –aurrez 135/1994 Foru Dekretuan jasotzen ziren–. Planak, Foru Dekretu berriak arlo administratibo orotan euskararen presentzia eta balorazioa murrizteko daukan benetako xedearekin bat, esaten du "deialdiaren puntuazio osoaren %5,25 gehieneko balorazioa emango zaiela euskararen ezagutzaren ziurtagiri ofiziala kreditatzen dutenei"; lehen, aldiz, 135/1994 Foru Dekretuak eremu mistorako agintzen zuen euskararen balorazioa merezimendu gisa "inoiz ere ez dela izanen gehieneko puntuazioaren %5 baino txikiagoa" (23. art.).

Arlo honetan, gainera, klausula berri bat finkatu du Foru Dekretu berriak. Lege estaldura jakinik ez duen klausula honen ondorioz, lotu

egiten dira euskara jakitearen balorazioa eta frantses, ingeles edo alemanaren ezagutzaren balorazioa. Lotura hau Foru Dekretu berriko 21 eta 23. artikuluetan aurreikusten da, nahiko idazketa nahasgarri batean. Aipatutako azken artikuluan, honela dio zehatz-mehatz:

"Eremu mistoan euskaraz jakitea merezimendu gisa baloratzen denean, halakotzat hartzen denean, balorazio hori ez da inoiz ere izanen frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik (Europako Batasunean erabilera ofiziala duten hizkuntzen artean) merezimendu gisa aplikatzen den puntuazioaren %5 baino goragokoa; deialdi bakoitzean zenbateko zehatza adieraziko da."

Honi dagokionez, adierazi beharra dago –aurrerago zehaztasun handiagoak emango badira ere– Europako Batasunean aipatutako horiek baino askoz ere hizkuntza ofizial gehiago daudela (italiera, portugesa, suediera, daniera, nederlandera, greziera...), eta litekeena dela etorkizun hurbilean, herrialde berriak sartzen joan ahala, askoz ere gehiago aintzatestea. Honen inguruan bota beharreko lehen galdera, honakoa litzateke: ea Foru Dekretuko aurreikuspen normatiboak eragotzi edota onartu egiten ote duen Europako Batasuneko Institutioen beste hizkuntza ofizialak baloratzea, espresuki aipatutakoez gain. Zera dio, halaber, Foru Dekretuko bigarren xedapen gehigarriak:

"Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak proposaturik, Erabakia hartuko da, Foru Dekretu honekin bat, lanpostuak betetzeko edozein deialditako behin betiko baremoak egiteko arauak ezar daitezten; frantsesa, ingelesa edo alemana (Europako Batasuneko hizkuntza ofizial gisa) jakiteagatik kontuan hartuko den berariazko merezimendua sartuko da, bai eta euskarari dagokiona ere."

Argi dago Erabaki hori arau juridiko izan dadin argitaratu egin beharko dela, baina ez da hori uneotan aztertu nahi dudana. Kontua da maiatzaren 29ko 138/2000 AKEren eta bere doktrinaren esanetan, "erregelamenduek edota legea aplikatzen duten egintzek" ezin dituztela legeak funtzio publikora sartzeko prozeduretarako aurreikusten dituen baldintzekiko desberdina den baldintza berririk sartu; beraz –Nafarroako Kontseilu Kontsultiboak Foru Dekretuaren Proiektuko 24. artikulua inguruan egiten duen bezalaxe– ikusi beharko litzateke euskara baloratzeko edo euskara jakitea exijitzeko estaldura legegilea Euskarari buruzko Foru Legeak ematen baldin badu, zein den, funtzio publikoari dagokionez, Europako Batasuneko hizkuntza batzuk exijitzea edo baloratzea baimentzen duen legedi nafarra, eta euskararekin baloratzeko orduan proportzionaltasuna finkatzen duena, bai hizkuntza ofizial gisa, bai errespetu eta babes bereziak merezi dituen hizkuntza gisa. Nire

iritzian, askoz ere errazagoa da lege estaldura jada bertan behera dagoen Foru Dekretuaren Proiektuko 24. artikulua aurkitzea –geroago argudiatuko dudana bezala, *infra F atalean*–, Foru Dekretuak egun dauzkan arautzat aurkitzea baino, non euskarari Europako Batasuneko hainbat hizkuntzekiko balorazio proportzionatua ematea exijitzen den.

Azkenik, Foru Dekretuko xedapen orokorren legaltasunari buruzko oharrekin amaitzeko, 1.1 artikulua aipatu behar da, bi arrazoigatik. Batetik, bere aplikazio eremuari dagokionez, Foru Komunitateko Administrazioa, Toki Administrazioak eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateak aipatzen ditu Foru Dekretuak. Ostera, Euskarari buruzko Foru Legeko 15. artikulua dioenez, “Administrazio Publikoek eta *izaera publikoko enpresek*, eremu euskaldunetan lan egiten duten langileen euskara erabiltzeko gaikuntza progresibo sustatuko dute”; testu honi lotuta, Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera arautzen duen martxoaren 21eko 70/1994 Foru Dekretuak espresuki adierazten zuen izaera publikoko enpresak bere aplikazio eremuan barnebiltzen zirela. Algora al daiteke izaera publikoko enpresei egindako aipua, euskara eremu euskaldunetan erabiltzeko orduan? Erantzuna, nire ustez, oso argia da: ez. Erantzun hau emateko, egun Foru Gobernuak Unibertsitate eta Hizkuntza Plangintzako zuzendaria den Pegenaute Gardek enpresa publikoen aipamena kentzeko Foru Parlamentuko Plenoan defendaturiko emendakina Plenoak atzera bota izana hartzen dut oinarritzat (*vid.* Nafarroako Parlamentuko 1986ko abenduaren 1eko Bilkura Egunkaria, 42-44 orr.). Parlamentuan argudiatzen den bezala, kontuan izan behar da Administrazio Publikoek, beren zerbitzuetan, gero eta gehiagotan erabiltzen dituztela formula juridiko pribatuak –hala nola baltzu anonimoak–; beraz, logikoa dirudi zuzenbide publikoko entitateak, *sensu lato* baltzu edo enpresa publikoak ere bere baitan barnebilduz (eta are gehiago Nafarroan, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak Estatuan LOFAGEk derogatu zuen Aurrekontuen Lege Orokorreko 6. artikuluko sailkapena egiten duela), eta beren eraketako erregimen juridikoa edozein izanik ere, 372/2000 Foru Dekretuaren aplikazio eremuan egotea eremu euskaldunetan. Inork ez du zalantzan jarri ere egiten eremu horretan euskara eta gaztelaniaren ofizialtasun bikoitza dagoenik.

Foru Dekretuko 1.1 artikuluari buruz ikuspuntu formal batetik legaltasunaren inguruan egin beharreko bigarren oharra, “Nafarroako Administrazio Publikoetako euskararen erabilera normal eta ofizialaren erregulazioa” espresioaren ingurukoa da. Horretara mugatzen al da Foru Dekretuaren edukia? Geroago izango dugu Euskarari buruzko Foru Legea prestatzeko prozesuan “erabilera normal eta ofiziala” tituluaren inguruan sortu ziren debateak gogoratzen.

aukera, bereziki euskararen erabilera eremu mistoan ofiziala izan behar zuenaren edo ez zuenaren inguruan, Lege Proiektuaren edukia aldatu gabe, soilik kapituluaren izenburuari begira. Foru Dekretuaren kasuan, 1.1 artikulua “Nafarroako Administrazio Publikoetako euskararen erabilera normal eta ofiziala” aipatzen du, esklusiboki eremu euskaldunari buruz aritu gabe. Zein da Dekretuko lehenengo esaldi honen –eta garrantzitsuen denaren– esanahia?

Hausnarketa Foru Dekretuaren izenburuaren beraren inguruan ere egin daiteke: soilik Administrazio Publikoetako euskararen erabilera arautzen da? Hainbat artikulua ikusita –hala nola Foru Dekretuko 16. artikulua, non esklusiboki gaztelaniaren erabilera egiten baitzaion aipu–, Foru Dekretuaren izenburuak orokorragoa izan beharko luke, eta, aztertu egin beharko liriteke araudian zehar erabilitako titulu kompetentzialak. Dekretuko xedapen orokorretan “euskararen erabilera normal eta ofizialaren erregulazioa” agertzeak nahasmena sor dezake, ofizialtasunaren ikuspegitik eremu bakoitzeko hizkuntza erregimena desberdindu beharrik ez dagoela pentsaraz dezakeelako.

Euskara, eremu euskalduneko Administrazio Publikoetan

Foru Gobernuak 2000ko ekainaren 19an onetsitako Foru Dekretuaren Proiektuaren helburua, inolako zalantzarik gabe, euskararen erregimen juridikoa eremu euskaldunetan ere aldatzea zen, 18/1986 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraitu gabe. Ikusi besterik ez dago Proiektua bera eta Nafarroako Kontseilu Kontsultiboaren 2000ko azaroaren 6an emandako Irizpena; azken honetan adierazten zenez, 8.1 artikulua, 8.2 artikulua, 9.2 artikulua, 9.3 artikulua, 10.2 artikulua eta 11.2 artikulua, eremu euskaldunari buruzkoak, ez zitzaizkion Legeari egokitzen, eta, beraz, ez zetozen ordenamendu juridikoarekin bat.

Logikoa den bezala, aldatu egin zen eremu euskaldunetan euskararen ofizialtasuna murrizteko eta lehentasuna gaztelaniari emateko xedea zuten artikulua hauen guztien hasierako idazketa. *A sensu contrario*, Foru Dekretuaren Proiektuko 7. artikulua bakarrik deklaratu zuen Nafarroako Kontseilu Kontsultiboaren Irizpenak ordenamenduarekin bateragarri. Baina, adierazi den bezala, 7. artikulua horretan ere, hizkuntzen ofizialtasun bikoitzaren aplikazio eremuari dagokionez “Administrazio Publikoak eta haiei lotutako zuzenbide publikoko entitateak” aipatzerakoan, enpresa publikoak Administrazio Publikoetako lotutako entitateak direla ulertu behar da. Euskarari buruzko Foru Legeak aipamen esplicitua egiten die entitate haiei, Administrazio Publikoekin batera, eta langileak euskaraz gaitu behar dituztela adierazten du, horrela herritarrak

aukeratutako hizkuntza eskubidea bermatu ahal izan dadin eta, ondorioz, erabiltzailea edo administratua nahi duen hizkuntza ofizialean atenditu daitezten.

Azken honen inguruan, zera zioen 10.3 artikulua Proiektuan –eta bere horretan mantentzen da Foru Dekretuaren behin betiko testuan– : “ahozko komunikazioetan, funtzionarioek zerbitzua eman *ahalko diete* herritarrei azken hauek aukeratzen duten bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan”. Zer esan nahi du “ahalko diete” horrek? Esanahi fakultatibo bat daukala pentsa al liteke, alegia, funtzionarioek ere bi hizkuntza ofizialen artean aukera egin ahal izango dutela? Honen inguruan hausnarketa labur bat egin ostean –eta funtzio publikoa betetzen ari den funtzionarioak aukeratzeko eskubidea balu zer gertatuko zatekeen pentsatuz gero– , garbi ikus daiteke “ahalko diete” horrek adierazten duela funtzionarioek bi hizkuntza ofizialeko edozein erabiltzeko aukera daukatela, baina aukera egitea herritarri dagokiola betiere, Euskarari buruzko Foru Legeak (10.1 art.) eta Foru Dekretuak berak (7 eta 1.1.1 artikulua) esplizituki zehazten duten bezala. Modu egokiago batean, 70/1994 Foru Dekretuko 10.3 artikulua adierazten zuen “ahozko komunikazioetan, bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan zuzendu ahal izango dira funtzionarioak herritarrengana, baina gero azken hauek aukeratzen duten hizkuntzan atenditu beharko dituzte”.

Bestetik, 11.1 artikulua berdin-berdin mantentzen da, eta zera dio: “bulego, langela eta egoitzetako errotuluak, paperen idazpuruak edo menbreteak, ziguilu ofizialak eta gainerako identifikazio nahiz seinalizazio elementuak ele bitan idatziko dira”. Baina, apropos edo nahigabe, aldaketa bat gertatzen da, zera baitio kasuari aplikagarri zaion laugarren xedapen gehigarriak: “Foru Dekretu honen arabera zilegi denean ele bitan egitea errotuluak, seinalizazioak, agiriak, inprimakiak, formularioak, ziguiluak, jakinarazpenak, argitalpenak, publizitatea eta komunikazioak, euskarri fisiko bereizietan egin ahal da, hots, gaztelaniz bata eta euskaraz bestea, edo biak batera, Administrazioeko edo dagokion entitateko organo eskudunak erabakitzen duenaren arabera”.

Bestetik, Nafarroako Kontseilu Kontsultiboaren Irizpenaren ondorioz, errotik aldatzen da Administrazio Publikoen arteko harremani buruzko artikulua. Ondorioak positiboak dira oro har, nahiz eta 9.4 artikulua, adibidez, zehatzagoa izan zatekeen Foru Komunitatearen berezko eskuduntzen egikaritzaren harian Justizia Administrazioan koofizialtasunaren norainokotasuna eta ondorioak arautzerakoan (honi dagokionez, eta xehetasun gehiago jasoaz, ikus nire lana, “*Caracteres jurídicos de la Administración de Justicia en un Estado plurilingüe*”, RVAP, 57. zkia., 2000, 226-227 orr., edota Aginte Judizialaren

Kontseilu Orokorren enkarguz zuzendu dudan liburua: “*La Administración de Justicia en un Estado Plurilingüe*”, Cuadernos de Derecho Judicial, Madrid 2000).

Era berean, ondorioak eremu euskaldunetik kanpo izan behar dituzten agiri publikoen inguruan, Foru Dekretuko 9.2 artikulua dio “fede publiko administratiboa eta ziurtatze administratiboaren eginkizuna esleitua duten funtzionario publikoek gaztelaniz egin beharko dituztela”. Baina xehetasun garrantzitsu bat aipatu beharra dago artikulua honi dagokionez, 4/1999 Legeko 36.3 klausula gogoan hartuz (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea erreformatzen duena), esaten baitu “Administrazio publiko instruktoarak gaztelaniara itzuli beharko dituela ondorioak Autonomia Erkidegotik kanpo izan behar dituzten agiriak”, salbuespen batekin: “gaztelania ez den hizkuntza hori bera koofiziala den autonomia erkidego batean sortu behar baditu ondorioak”, zeren eta kasu horretan “ez da itzultzeko beharrik izango”. Hori bera, jakina, eremu euskalduneko Administrazioetako agiriekin ondorioak Euskal Autonomia Erkidegoan sortu behar dituztenean ere gerta daiteke. Apirilaren 6ko 50/1999 AKEK berretsi du azken interpretazio hau dela doktrina konstituzionalari ondoen egokitzeko zaila, 30/1992 Legeko 36.3 artikulua hasierako idazketaren argitan. Foru Dekretuko 9.2 artikulua, beraz, fede publiko administratiboa eta ziurtatze eginkizuna esleitua duten funtzionarioei agiriak euskara hutsean egitea ahalmentzen dien moduan interpretatu behar da, ondorioak Euskal Autonomia Erkidegoan sortu behar dituztenean.

Azkenik, eremu euskaldunean aplikatzekoak diren artikuluetan legaltasunaren inguruko auzi garrantzitsu batzuk sortzen dira 18.3, 18.4 eta 21.1 artikuluetan, “lanpostuak bete eta hornitzeko euskaraz nahitaez jakitea, eta euskara baloratzea”-ren inguruan.

Ekin diezaiogun azterketari arazo ezagunak sortzen dituen 21.1 artikuluekin. Honela dio:

“Euskaraz jakitea, beste merezimendu batzuen artean, merezimendu kualifikatutzat hartu behar denean eremu euskaldunean, euskararen balorazio horrek izan dezakeen gehikuntza portzentajea ez da inoiz ere izanen frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik (Europako Batasunean erabilera ofiziala duten hizkuntzen artean) merezimendu gisa aplikatzen den puntuazioaren %10 baino goragokoa; deialdi bakoitzean zenbateko zehatza adieraziko da”.

Artikulu hau derogatzen duen 135/1994 Foru Dekretuko baliokidearekin alderatuz gero, argi ikus litezke desberdintasunak. Zehazki, zera zioen 21. artikulua:

“Euskara jakitea merezimendu kualifikatu gisa baloratzen den kasuetan, balorazio horrek eskura daitekeen puntuazio maximoarekiko izan dezakeen portzentajea ez da inoiz ere izanen %10 baino txikiagoa”.

Artikulu bata zein bestea irakurri ostean, berehala ikus liteke zeinen argia zen derogatutako artikulua, eta zeinen korapilotsua den indarrean dagoena. Ez dago esan beharrik Europako Batasuneko Instituzioetan 21. artikulua horrek aipatzen dituen erabilera ofizialeko hizkuntzak baino askoz ere gehiago daudela, eta ez dagoela frantsesaren, ingelesaren edo alemanaren balorazioa euskararekin baloratzeko proportzionaltasun harremana sortuko lukeen lege estalduraren arrastorik ere. Gainera, eremu euskalduneko Administrazioetako lanpostu guztietan funtzio publikoak betetzeko euskara jakitearen balorazioa edo exijentzia zuzenean euskararen ofizialtasunarekin lotuta dago, eta baita ere euskaraz atenditua izateko eskubidea daukan eta gehienbat elebiduna den biztanleriari atenditzeko merezimendu edo gaitasunarekin.

Baina Europako Batasuneko hizkuntza ofizial batzuk baloratzeko lege estaldurarik izan ez arren, zein da Nafarroako hizkuntza ofizial baten balorazioaren eta lurralde horretako Toki Administrazioetan ofizial ere ez diren hizkuntzen artean proportzionaltasun harreman bat ezartzeko aukera ematen duen irizpide juridikoa? Lehenik eta behin, argi dago artikulu hori zuzenbide osoz deuseza dela, hizkuntza ofizial bat ofizial ez diren beste batzuekin lotu nahi izateko erabiltzen den arbitrariedade dela-eta, eta, bigarren, errealitate soziolinguistikoak eta herritarrek hizkuntza ofizial batean atenditua izateko dauzkaten hizkuntza eskubideek egoera berezi batean ipintzen dute euskara, eremu euskalduneko lanpostuetan sartzeko prozesuetan frantses, ingeles edo alemanarekin batera baloratzeko proportzionaltasun parametroekin inolaz ere parekagarria ez den egoera batean. Eta, hori guztia, Legearen aldetik Europako Erakundeetako hizkuntzak exijitu edo baloratzeko neurriak har daitezkeela alde batera utzita.

Bigarren, Euskarari buruzko Foru Legeko 15.2 artikulua exekutatu (zeinak baitioen “Administrazio bakoitzak, beraiei dagozkien eskuduntzen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskara jakitea, eta gainerakoentzat, kontuan hartzeko merezimendutzat hartuko da”), funtzio publikoak betetzeko euskara jakitea baloratu egin beharrean exijitu egiten denean, Foru Dekretuko 18.3 artikulua dio:

“lanpostu hauek eskuratzen dituztenek, aurrerantzean, euskaraz jakitea nahitaezkoa duten lanpostu hutsak betetzeko deialdietan soilik parte hartu ahalko dute”.

Honi buruz derrigor luzatu beharreko galdera honakoa da: ea Foru Dekretu soil baten bidez, eta aurrez lege estaldurarik egon gabe, muga ote dakiekeen funtzionario batzuei lanpostu hutsak betetzeko deialdietan parte hartzeko aukera, kontuan izanik 18.3 artikulua hori existituko ez balitz parte hartu ahal izango luketela. Argi dago ez Euskarari buruzko Foru Legeak, ez Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateratuak ere ez dutela halako neurri ikaragarri eta diskriminatzaileak hartzea baimentzen. Artikulu hori, beraz, ilegala eta zuzenbide osoz deuseza dela esan beharra dago.

Gehiago sakonduz, kontuan izan artikulua, idatzita dagoen moduan, edozein lanpostu betetzeko deialdietan parte hartzeko aukera mugatuko lukeela (merezimendu bidezko lehiaketetan, izendapen librean, behin-behineko adjudikazioan eta barne izendapenean). Izendapen librekoak ez diren lanpostuak betetzeko, adibidez, aipatutako Testu Bateratuko 33. artikulua dioen gauza bakarra da: “merezimenduen lehiaketa bidez egingo da, lanpostu hutsei dagozkien mailako funtzionarioek, dagoen Administrazio Publikoak, parte hartu ahal izango dutela, betiere lanpostu horiek betetzeko kualifikazio profesionala eta gainerako baldintzak betetzen badituzte”. Baina, Legearen kaltetan gabe, baldintza horiez guztiez gain, lana euskaraz betetzeko gaitasuna frogatua edukitzeak ezin du lanpostu hutsak betetzeko parte hartzeko penalizazio bat izan.

Artikulu berriak, gainera, karrera administratibo askea ere eragotzi egin lezakeela dirudi, Testu Bateratuko 15. artikuluan aurreikusitako mailaren promozioa (taldea) aplikatzearen ondorioz Nafarroako edozein Administrazio Publikoko funtzionarioen arteko *horniketa murrizturako* hautapen probak egiten direnean. Legeak kasu horretarako eskatzen duen bakarra zera da: konbokatutako lanpostu hutsak baino maila (talde) txikiago batekoa izatea, deialdian eskatutako titulazioa izatea, Administrazio Publikoetan bost urteko aintzinasuna kreditatzea, borondatezko edo derrigorrezko eszedentzia egoeran ez egotea, eta dagozkion hautapen probak gainditzea.

Azkenik, Foru Dekretuko 18.3 artikulua ez du ezer esaten Foru Dekretua indarrean sartu baino lehen euskara derrigorrez jakin beharreko funtzio publikoak betetzen dituztenek izan litzaketen “eskuratutako eskubideei” buruz. Hala ere, zera dio 18.4 artikulua:

“Errespetatu eginen dira euskaraz jakitea etorkizunean nahitaezkoa izanen duten lanpostuak orain euskaraz jakin gabe betetzen dituzten pertsonak eskuratutako eskubideak. Betiere, euskara ikasteko prestakuntza ekintzarik antolatzen bada, nahi badute horietan parte hartzeko aukera eskainiko zaie”.

Behin euskara borondatez ikastea erraztuko duten neurriak hartu ostean, ezin izango zaio ezer leporatu 18.4 artikuluko bigarren puntu honi. Baina funtzio publikoak behar bezala betetzeko euskara nahitaez jakin behar den lanpostuei dagokienez, ba al dago eskuratutako eskubiderik? (Doktrinari dagokionez, funtzio publikoko ustez eskuratutako eskubideei buruz ikuspegi zuzen bat izateko, *vid.* M. Sánchez Morón, “*Derecho de la función pública*”, Madril, 1996, 54 eta hurr. orr. eta A. Palomar Olmeda, “*Derecho de la función pública. Régimen jurídico de los funcionarios públicos*”, 3. ed., Madril, 1996, 42 eta hurr. orr.). Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateratuko 19. artikulua dio dagozkien plantilla organikoek adskribitzen diren mailaren (taldearen) arabera sailkatuko dituztela lanpostuak, eta, beren kasuan, baldintza zehatzak ere bai (hala nola euskara, 18/1986 Foru Legeak sartu zuena), lanpostuak betetzeko beharrezko baldintza gisa. Legeak ez du salbuespenik aurreikusten, eta lege estaldurarik gabe ezin da eskubiderik eskuratu. Beraz, Foru Dekretuko 18.4 artikulua zuzenbide osoz deuseza izango litzateke, hain zuzen ere Legearen babes hori ez izateagatik.

Honi dagokionez, Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiak adierazi du –Auzitegi Konstituzionalak 46/1991 Epaia eman ostean katalana jakin beharra, funtzio publikoan exijitutako beste edozein baldintza bezala, merezimendu eta gaitasunetik kanpo dagoen *ad extra* baldintza bat ez dela berrestu ondoren– behin betiko betetzen diren lanpostuetan irauteko –eta funtzionario publiko izateagatik dauzkaten karrerako eskubide guztiak egikaritzeko– eskubidea ezin dela funtzionarioaren estatutuan barnebil daitezkeen hizkuntza ofizialak jakin beharrendaren exijentziatik deskontestualizatu. Auzitegi Gorenak 1994ko irailaren 30eko Epaia honetan (775/1992 Errekurtsoa) dio hizkuntza koofiziala jakitearen baldintzak “egokia” izan behar duela, eta ondorioak sor ditzakeela lanpostura sartzekoan, horniketarako lehiaketetan, promoziorako lehiaketetan, eta lanpostu batean zerbitzu komisioen erregimenean adskribitzerakoan.

Beraz, Nafarroako eremu euskaldunean lanpostu bat bete ahal izateko euskara nahitaez jakin beharra badago, eta funtzionarioak ez baldin badaki euskaraz, bere gaitasuna mugatuta egongo da funtzio publikoak betetzerakoan, eta litekeena da funtzio horiek betetzeko gai ez izatea ere. Adibidez, udal korporazioko kide guztiek balio osoz eta ondorio juridiko guztiekin euskara erabiltzen duten osoko bilkura bateko akta euskaraz ez dakien udal idazkari batek prestatu behar baldin badu, hau ez da bere funtzioak betetzeko gai izango. Eta, horrelakoetan, Foru Dekretu batek –lege estaldurarik gabeak– nahi adina eskuratutako eskubide aitortu arren, ezintasun juridiko eta faktikoa sortzen da, eta

horrek delako artikulua zuzenbide osozko deuseztasuna dakar berekin.

Euskara, eremu mistoko Administrazio Publikoetan

R. Gurra Induráin jaunak, gaur egun Nafarroako Gobernuko lehendakariordea eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria denak, zera adierazi zuen Foru Parlamentuan, UPNko bozeramaile bezala, aurkeztutako osoko zuzenketa defendatuz (Parlamentuko 1986ko azaroaren 4ko Bilkura Egunkaria, 51. or.):

“Gure ustez, eremu euskaldunean euskararen ofizialtasunari estatutu juridiko bat eman beharrak ez du esan nahi ofizialtasun hori beste eremuetara zabaldu behar denik, hau da, Gobernu sozialistaren proiektuak sortu duen eremu mistora. Horrek Hobekuntza Legeak berak ezartzen duen sailkapena urratzen du, zeren eta eremu euskaldunak eta, *sensu contrario*, euskaldunak ez diren beste batzuk ezartzen ditu”.

Osoko zuzenketa atzera bota ostean, UPN Talde Parlamentarioak 35. emendakina aurkeztu zuen, helburu berarekin, zera argudiatuz:

“13/1982 Legeak (LORAFNA) ez du inolako eremu mistorik aurreikusten. Gainera, guztiz ezezagunak dira Foru Komunitatean gainerako lekuekiko hain erabilera linguistiko desberdinak dauzkan eremu hau sortzeko erabili diren irizpideak”.

Emendakina, jakina, atzera bota zen, baina J.I. del Burgo Tajaduraren Talde Popularrak sutsuki babestu zuen (Nafarroako Parlamentuko 1986ko abenduaren 1eko Bilkura Egunkaria, 18. or.), eta, modu bareago batean, baita ere P. Pegenaute Garderen Talde Moderatuak. Azken honek esaten zuenez, “ez zitzaion gehiegi gustatzen, ez zuen oso gogokoa eremu misto bat existitzea” (Nafarroako Parlamentuko 1986ko abenduaren 1eko Bilkura Egunkaria, 22. or.). Talde Sozialistako ordezkariak, Cristobal García, ostera, “Legea bera, erabilera ofiziala eta irakaskuntza eremu batzuetan banatzeko, eremu misto baten beharra” ikusten zuen (Nafarroako Parlamentuko 1986ko abenduaren 1eko Bilkura Egunkaria, 21. or.).

Azken honi dagokionez, honela mintzatu zen orduko Hezkuntza eta Kultura kontseilaria (Felones Morrás) eremu mistoari buruz, Euskarari buruzko Foru Legearen Proiektua defendatzerakoan (Nafarroako Parlamentuko 1986ko azaroaren 4ko Bilkura Egunkaria, 24. or.):

“Neurri hauetako batzuk ezkutuan ofizialtasun bat sortzen ari direla esaten duena, argi uzten ari da ez duela honi buruzko doktrina konstituzionala ezagutzen. Auzitegi Konstituzionalak duela gutxi emandako epai

batean adierazi du hizkuntza bat ofiziala dela botere publikoek beren artean edo herritarrekin komunikatzeko bitarteko normal gisa aitortzen dutenean. Eta baldintza hau botere publiko guztiei zaie aplikagarri, ez erkidegokoei bakarrik. Nire ustez proiektuan garbi ikus daiteke proposatzen diren neurriak salbuespenezkoak eta partikularrak direla. Normaltasuna beste gauza bat da: kasu posible guztietara orokortzea izango litzateke. Era berean, argi dago proposaturiko neurriek Foru eta Toki Administrazioari bakarrik eragiten dietela, baina ez Estatukoari. Ofizialtasun errearen kasuan, Estatukoak ere egon lotuta egon beharko luke.”

Lege Proiektuaren *iter* parlamentarioari begirada bat botaz gero, ikus daiteke ia berdin mantentzen direla eremu mistoari buruzko artikulua, Talde Sozialistako bozeramaileak debate parlamentarioetan zehar hainbat aldiz adierazi duen bezala. Bere adierazpenen paradigma gisa, Foru Legearen Irizpenaren alde egindako azkena aipa liteke (1986ko abenduaren 2ko Bilkura Egunkaria, 39. or.). Honela mintzatu zen:

“Legeari aldaketak egin zaizkio, gure iritzian txikiak diren aldaketak, ia inolako garrantzirik gabekoak. Hala ere, ez gara Del Burgo jauna aurkakoaz konbentzitzen saiatuko. Baina gure abiapuntua beti berdina izan da, eta horrek garbi gelditu behar du Legeari baiezkotzea botoa eman diogula azaltzeko orduan.

Nafarroa erkidego elebidun bat da, Lege honen existentziak berak erakusten duen bezala. Nafarroan bada marjinatuta egon den eta herritar diren aldetik eskubide osoak izan ez dituen gutxiengo linguistikoa bat; herritar hauek ezin izan dute beren hizkuntza ofizialki erabili, eta beren seme-alabek ezin izan dute hizkuntza ofizial hori eskolan ikasi. Horregatik, Euskararen Legearen Proiektu bat prestatu genuen sozialistok, nafar guztiak elkarbizitzeko Erkidego egonkor bat lortzeko obligazioan pauso bat gehiago emanaz, nafar erdaldun elebakarrak eta nafar elebidunak marko konstituzionalaren baitan berdintasun egoeran ipintzeko, nafar elebidunen gutxiengoa eta nafar erdaldun elebakarren gehiengoa elkarri gehiago hurbiltzeko, nafarrek hala nahi izanez gero etorkizunean guztiak elebidun izateko eta nahi duten hizkuntza nafarrean hitz egin ahal izateko.”

Nire ustez, Talde Sozialistako bozeramaileen adierazpenek argi eta garbi adierazten dute zeintzuk ziren Euskarari buruzko Foru Legea behin betiko onestu zuen legegilearen jarrera eta asmo interpretatzailea. Baina ikus dezagun zeintzuk diren *iter* parlamentarioan zehar Lege Proiektuan eremu mistoan sartzen diren aipatutako aldaketa horiek (eta, antza denez, Talde Sozialista aurrez goitik beherako osoko zuzenketa aurkeztu zion Lege Proiektuari baiezkotzea

botoa ematera eraman zuena, nahiz eta bere botoak ez ziren beharrezkoak berari gehiengo absolutuz onesteko –ikus bedi testuinguru honetan bozeramaile sozialistak Talde Popularreko Del Burgo Tajadura bozeramaileari egiten dion aipamena–).

Bada, lau dira hasierako Foru Lege Proiektuak izan zituen aldaketak, lauak, nire ustez, irrelebante edo “intraszendentek” izanik, bozeramaile sozialistak esan bezala. Lehenengoaren arabera, 18. artikulua (Iruñan itzulpen unitate bat ipintzeari buruzkoa) I. Tituluko Xedapen Orokorretara pasatzen da, Legeko behin betiko 9. artikulua bihurtuz. Bigarrena, aldaketa formal bat da: Proiektuan 16 eta 17.etan xedatzen zena, orain artikulua bakar batean biltzen da (behin betiko 17.ean). Hirugarren, Proiektuak zioen Administrazioek “urteroko enplegu publikoaren eskaintzan zehaztuko dute euskara jakitea nahitaezkoa duten lanpostuak”, eta behin betiko testuak dio Administrazioek “zehaztu ahalko dute...”. Allí Arangurenek foru parlamentuan legerari buruzko debatean ondo baino hobeto esan bezala (1986ko abenduaren 1eko Bilkura Egunkaria, 52. or.):

“Lege batek esaten duenean <<Administrazioak ahalko du>>, esan nahi du Administrazioak hori bakarrik egin dezakeela. Ez du esan nahi zerbait egiteko edo ez egiteko aukera ematen dionik, baizik eta esaten zaiona egin behar duela. Beraz, Irizpeneko 16. artikulua <<ahalko dute>> esaten duenean herritar guztiei Administrazio publikoari zuzentzeko aitortzen zaien eskubidearen berme bezala, betebeharrak ezartzen dio Administrazio publikoari: enplegu publikoaren eskaintzan, euskara derrigorrezkoa duten lanpostuak zehaz ditzala. Eta ezin du nahi badu egin, eta nahi ez badu ez; derrigor egin beharko du.”

Beraz, azken helburu honi dagokionez, Administrazioak eremu mistoan zehaztu “ahalko” du zeintzuk diren enplegu publikoaren eskaintzan nahitaez euskara jakitea eskatzen duten lanpostuak, elebidunek Administrazioarekiko harremanetan euskara erabiltzeko duten eskubidea bermatu ahal izateko. Hori egin ondoren, lanpostu horiek bete nahi dituztenei euskara jakitea exijitu beharko zaie.

Azkenik, laugarren, esan behar da Proiektuak “Nafarroako Administrazio Publikoarekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea” aitortzen duela, eta Foru Legeak, aldiz, “Nafarroako Administrazio Publikoari zuzentzeko euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea”. Kontuan izan azken kasu honetan euskaraz zein gaztelaniaz –antzeko moduan– zuzentzeko eskubidea aitortzen dela. Hemen egin beharko litzatekeen galdera da ea Legeak harremanetan jartzeko eskubidea hizkuntza aktiboki erabiltzera mugatzen ote duen,

eta Administrazioak (hau da, funtzionarioak), erantzuna ematerakoan, nahi duen hizkuntza erabil ote dezakeen. Nire iritzian, argi dago funtzionarioak euskaraz ez baldin badaki, ahozko harremanetan desagertu egingo dela “zuzentzeko eskubidea”; gaztelaniarik ez ote dakien, aldiz, ezin da planteatu ere egin, jende guztiak dakielako. Baina funtzionarioak bi hizkuntzak balekizki, eta ez balitz herritarren hizkuntzara egokituko, nire ustez hor hizkuntzagatiko diskriminazioa sortuko litzateke, Euskarari buruzko Legeak oro har 3. artikuluan debekatzen duena, eta zehazki 17.ean, funtzio publikoak betetzeko euskara jakitea eremu mistoko Nafarroako Administrazio publikoei euskaraz “zuzentzeko” eskubidea egikartzeko bermearekin lotuz.

Indarrean dagoen 372/2000 Foru Dekretuak, jada ikusi den bezala, Foru Komunitateko Administrazioako zerbitzu nagusiek “euskaraz atenditzeko” eskubidea aitortzen du bere xedapen orokorretan, eta, herritarren hizkuntza eskubideak bete ahal izateko, eremu mistoko langileak gai daitezela agintzen du. Honi dagokionez, 70/1994 Foru Dekretuko 12.2 artikulua derogatuak, modu argiago eta zuzenago batean, zioen “eremu mistoko Nafarroako Administrazio Publikoek neurriak hartuko dituzte herritarrek Administrazioarekin euskaraz *erlazionatzeko* duten eskubidea bermatzeko”.

Beraz, nola ulertu behar da “zuzendu” hitza Euskarari buruzko Foru Legean? Erreferentzia gisa lan parlamentarioak hartuz gero, zera zioen Alli Aranguren foru parlamentariak (1986ko abenduaren 1eko Bilkura Egunkaria, 52. or.) Administrazio Zuzenbideko irakasle gisa:

“Proiektuan <<herritar guztiek Administrazioarekiko harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea daukate>> esaten duen lekuan, Irizpenean <<Administrazioari zuzentzeko>> esaten da, eta hortxe sublimatu da semantika.

Azalduko al zenidakete, jaun-andreok, zeintzuk diren herritarrek Administrazioarekin dauzkaten harremanak? Zeren eta Administrazioa pertsona juridikoa denez gero, pertsona juridikoekin oraingoz behintzat izan daitezkeen harreman bakarrak prozedura administratiboaren bidez bidera daitezkeenak dira. Askok, Administrazioa publikoa dela pentsatuz, adjektibo horren bitartez beste harreman mota bat egotea nahiko lukete (BARREAK), baina hori ez da posible. Beraz, Administrazioarekin izan daitezkeen harreman bakarrak prozedura administratiboak arautzen dituenak dira; hau da, Administrazioari instantziak formulatzeko zuzentzea, alegazioak formulatzeko zuzentzea, baimen, lizentzia, emakidak eta abar eskatzeko zuzentzea... Administrazioarengana jotzeko ekintzak dira, eta horiek dira, jaun-andreok, harreman juridiko-administratiboak sortzen

dituztenak. Zeren eta Administrazioari lizentzia bat eskatzeko, edo lehiaketa batean parte hartzeko, edo subasta edo emakida batean esleipendun izateko zuzentzen ez zaion herritarrek ez dauka harreman juridiko-administratibo berezirik Administrazioarekin. Gure Taldearen iritzian, gauza bera esaten ari gara. Eta proiektuan esaten zena zuzena iruditzen zitzaigunez, ez genuen zuzenketarik aurkeztu. Eta zuzenketarik aurkeztu ez genuelako, abstenitu egin ginen proiektuari aurkeztu zitzaizkion zuzenketetan. Hau ez da berun kontua, Pegenaute jauna; hau fusible kontua da, eta kasu honetan, proiektuari dagokionez, guri ez zitzaizkigun gurea funditu. Eskerrik asko”.

Ondorioz, Lege Proiektuaren edukia ikusita, nire ustez ezin da bukaerako testuak aldaketak izan dituenik baieztatu, eta inolaz ere ezingo luke osoko zuzenketa batetik aldeko botoa ematera igarotzearen aldaketa justifikatu. Baina, ikuspuntu formal batetik, eta eremu mistoko erregulazio materialaren edukia alde batera utzita, gertatzen dena da Lege Proiektuan II. Kapituluaren eraentzen zela “euskararen erabilera ofiziala eremu desberdinetan”-I. Tituluaren baitan, “erabilera ofiziala”-, eremu euskaldunari, mistoari eta ez-euskaldunari buruzko hiru atal zeuzkala; aldiz, behin betiko Legean, I. Tituluko –erabilera normal eta ofiziala– II. Kapituluaren –“eremu euskalduneko erabilera ofiziala”– eta III eta IV kapituluaren daude, hau da, eremu mistoko erabilerari eta eremu ez-euskalduneko erabilerari buruzkoetan, hurrenez hurren.

Eratortzen al daiteke ondorioz titulua eta kapituluaren izenburutik, araudiaren edukia edozein dela ere? Nire ustez, benetan garrantzia daukana erregulazio materiala da. Argi dago eremu euskaldunean euskararen ofizialtasuna eztabaiaezina dela, baina eremu mistoan existi al daiteke erabilera ofizialik, hizkuntza koofizialtasunik egon ez arren? Legearen esanetan arabera –eta Legea prestatzerakoan Parlamentuan izan ziren interbentzioen arabera–, esan daiteke eremu mistoko hizkuntza ereduak eremu euskaldunen eta ez-euskaldunen arteko *tertium genus* bat izan nahi duela. Bertan hizkuntza ofizialtasun bikoitzik ez dagoen arren, euskararen **erabilera ofizialak** daude, bai irakaskuntzan, bai Legeak eremu mistoko Administrazio Publikoei euskaraz –balio eta eraginkortasun osoz– zuzentzeko edo haiekin *erlazionatzeko* aurreikusten duen aukeran. Gainera, eskubide hau bermatzeko, Administrazioek adierazi egin beharko lukete zein lanpostutan den nahitaezkoa euskara jakitea, gainerakoetan merezimendu gisa hartu ahal izango delarik.

Beraz, ikuspegi honetatik, *tertium genus* hori ezabatuko lukeen edota eremu mistoan euskararen erabilera ofizialak galaraziko lituzkeen Foru Dekretu batek –edota bere garapen plan

batek-, Euskarari buruzko Foru Legea urratuko luke, eta zuzenbide osoz deuseza izango litzateke.

Foru Dekretu berriaren helburu nagusia Foru Administrazio zerbiztu nagusietan “zerbitzua euskaraz eman ahal izateko behar diren langileak antolatu eta gaitzea” baldin bada (372/2000 Foru Dekretuko 1.2.3 art.), ulertezina da euskaraz dakiten funtzionarioez osatutako “zirkuitu administratibo elebidunak” kentzea (70/1994 eta 135/1994 Foru Dekretuetako 12.3 artikuluan aurreikusita), eta horien lekuan ezer ez jartzea –izan ere, Euskarari buruzko Foru Legeak Nafarroako Gobernuak Iruñan euskara-gaztelania itzulpen ofizialeko unitate administratibo bat sor dezala aurreikusten du (EFLko 9. art.)–.

Baldin eta 372/2000 Foru Dekretuko 12.3 artikulua bidez lortu nahiekoa euskaraz dakiten funtzionarioen atentzio zuzenaren ordezkari buruzko Legean aurreikusitako itzulpen zerbitzuak ipintzea balitz –bereziki eremu ez-euskalduneko egoera berarekin (EFLko 18. art.)–, artikulu hau ez letorke Euskarari buruzko Legeko 17. artikuluko aurreikuspenekin bat eta, ondorioz, zuzenbide osoz deuseza izango litzateke. Aipaturiko 12.3 artikulua beste moduren batera interpretatzerik balego ere, baztertuta geldituko litzateke 2001eko urtarrilaren 8ko Erabakiaren argitan –euskararen erabilerari buruzko araudia eremu mistoan aplikatzeko Ekintza Plana onesten duena– zera esaten baita bertako 4.3 puntuan, ahozko atentzioari buruzkoan:

“Giza baliabide egokiak dauden unitate organikoetan, kontseilari arduradunak baimena eman lezake euskarazko atentzioa eskatzen duen herritarri halakoa emateko. Norbaitek atentzio hori eskatu, baina departamentu horretan hori eman dezakeenik ez badago, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Itzulpen Unitatearen laguntza eskatzen ahalko da horretarako. Itzulpen Unitatea Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbizuan dago.”

Artikulu hau irakurrita, badirudi herritarrekin euskaraz aritzeko gai diren funtzionarioei herritarrek 18/1986 Foru Legean aurreikusitako aukera linguistikoa egiten dutenean euskara erabiltzeko baimen administratibo gisako bat –ilegalki– inposatzen zaiela. Jakina, dagokion funtzionarioak ez baldin badaki euskaraz, eta une horretan ez dagoenean zerbitzu hori euskaraz eman dezakeen langilerik, herritarra inolako eskubiderik gabe geldituko da ahozko harremanetan –pentsaezina baita gauza hauetarako berehalakoan izatea itzultzaileen bat–.

Euskarari buruzko Legeak argi eta garbi xedatzen du eremu mistoan Administrazio Publikoek zuzentzeko eskubidea bermatzeko

aurreikusita dagoen bitarteko bakarra –ez-euskaldunaren aldean–, hainbat lanpostu betetzeko orduan euskara jakitea exijitzea dela, eta “gainerakoetan” merezimendu bezala baloratzea (17. art.).

Legeko 17. artikuluko horretan aurreikusitakoa argi eta garbi urratuz, zera dio 372/2000 Foru Dekretuko 22.1 artikuluko lehen paragrafoak:

“Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako Administrazio Publikoak ez daude inolaz ere behartuta euskaraz jakitea nahitaezko kalifikatza beren plantilletako lanpostuak bete behar dituztenean, euskara-gaztelania itzulpen lanekoetan izan ezik.”

Era berean, zera dio lehen aipatutako Ekintza Planeko 5.1 puntuak, zentzu berarekin:

“Oposizio, oposizio-lehiaketa edo lehiaketa bidez betetzeko lanpostuetan ez da euskara nahitaezko jarriko, salbu euskara-gaztelania itzulpen-lanerako lanpostu betegabeetan, deusetan ukatu gabe irakaskuntza publikorako euskararen erabilerari eta balorazioari buruz abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriak ezarritakoa.”

Artikulu batak zein besteak euskara jakitea lanpostu bakar batean ere gaitasun baldintza izatea beharrezkoa ez izateko aukera aurreikusten duten heinean –itzultzaileen eta euskarazko irakasleen kasuan salbu– eta, beraz, herritarrek eremu mistoko Administrazio Publikoetara zuzentzeko eskubidea egikaritzearen bermea *de facto* galaraziz, nire ustez garbi dago bi artikuluko zuzenbide osoz deusezak direla, Euskarari buruzko Foru Legea urratzen dutelako.

Lanpostuetan sartu eta hornitzeko euskara baloratzaeri dagokionez, zera dio 372/2000 Foru Dekretuak 22.2 artikuluan:

“Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako Administrazio Publikoek, nahi badute, zehaztu ahalko dute euskaraz jakitea, beste merezimendu batzuen artean, zein lanpostu zehatz eskuratzeko izanen den merezimendu beren oinarriko administrazio zerbitzuetan. Hori arrazoituriko ebazpenaren bidez egin eta plantilla organikoan adierazi beharko dute.”

Honi dagokionez, Euskarari buruzko Legeak dio euskara merezimendu gisa baloratu ahal izango dela euskara jakitea nahitaezkoa ez den “gainerako lanpostuetan” –betiere langile euskaldunak sartzeko errazteko helburuarekin, nahi duten herritarrek euskara erabili ahal izan dezaten–. Baina badirudi Foru Dekretuak orain, ilegalki, “oinarriko zerbitzu administratiboetako lanpostuetara” mugatu nahi duela balorazioa, zerbitzu horiek zeintzuk diren esan gabe. Gainera,

Legearen irizpide orokorraren ordean –“gainerako” lanpostuetan–, irizpide murriztailea erabiltzen duela dirudi, balorazioa justifikatzen duen arrazoituriko ebazpen batengatik, eta, ondorioz, “plantilla organikoan adierazpen zehatz bat” eginez.

Beharrezkoa zen 70/1994 eta 135/1994 Foru Dekretuetan azken zehaztasun hau ematea euskara jakitea nahitaezkoa den lanpostuei dagokienez, baina Dekretu berriak ez du nahitaezotasunik ezartzen lan arrunteko lanpostuetan, eta beraz, lehenagoko exijentzia horiek –lan eskaintza publikoetan derrigortasuna ezarri beharra oroitarazten duela–beriz ere inolako lege estaldurarik gabe aplikatzen dira balorazioan. Eta Foru Dekretuaren asmoa –euskararen erabilera murriztea– garbi gera dadin, ez da halako aurreikuspenik egiten Europako Batasuneko Instituzioetako hizkuntzak baloratzerakoan. Hizkuntza horiek, jakina, ez dira Nafarroako berezko hizkuntzak, eta legalki ez dute errespetu eta babes berezia merezi dituen (KEko 3.3 art.) bere “kultur ondarea” osatzen.

Era berean, eta jada adierazi den bezala (*supra* C eta D atalak), euskararen balorazioa proportzionaltasun harremanean jartzen da –hori egiteko lege estaldurarik gabe– Instituzio europarretako hizkuntza batzuekiko –nahiz eta Nafarroako lurraldean ez dagoen hizkuntza horiek erabili beharrik, eta hizkuntza horiek Nafarroan inolako estatutu juridikorik ez eduki–. Ekintza Planeko 5.2 puntuak zera gehitzen dio Foru Dekretuko berriko 23.1 artikuluan xedatutakoari:

“Lanpostu betegabeak merezimenduen lehiaketa bidez eskuratzeko prozeduran euskararen ezagutza baloratzen baldin bada, harekin batera frantsesa, ingelesa eta alemana ere baloratuko dira, Europako Batasuneko hizkuntzak baitira. Horretarako, hiru hizkuntza horietako bakoitzari merezimenduen baremoak guztira duen puntuazioaren %5 emanen zaio, eta %5,25 euskarari.”

Artikulu honek are gehiago murrizten du euskararen balorazioa, zeren eta 372/2000 Foru Dekretuak %5eko gehiengoa finkatzen du frantsesa, ingelesa edo alemanaren ezagutzearen merezimenduarekiko, baina Ekintza Planak –lege estaldurarik gabe– gutxienez %5 ematen dio “Europako Batasuneko hizkuntza bakoitzari” (guztira, %15era arte) eta euskararen balorazioa %5,25era mugatuta gelditzen da.

Administratuekiko harremanei dagokienez, zera dio Foru Dekretuko 15. artikulua:

“1. Egoitza eremu mistoan duten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak

zerbitzuetatik eremu euskalduneko pertsona fisiko nahiz juridikoei igortzen zaizkien komunikazio eta jakinarazpenak gaztelaniaz egiten dira, non eta interesatuek espresuki euskara erabiltzea hautatzen ez duten, orduan ele bitan egin ahalko baitira.

2. Eremu mistoko pertsona fisiko edo juridikoei erabiltzeko inprimaki eta formularioetan gaztelania hutsean edo ele bitan (gaztelania-euskara) idatzitako dokumentua erabili ahalko da, baina ale bereziak izanen dira, erabiltzaileak bat hauta dezan.”

2001eko urtarrilaren 8ko Ekintza Planeko 4.1 puntuak, zera esaten du:

“Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen dokumentu, agiri eta jakinarazpenak, normalean, gaztelania hutsean egiten dira. Departamentu bakoitzeko kontseilariaren esku dago dokumentu elebidunak egiteko baimena ematea, betiere eremu euskalduneari hasitako administrazio prozedurak baldin badira.”

Lehen, 70/1994 eta 135/1994 Foru Dekretuek Foru Komunitateko Administrazioak zerbitzu nagusiek eremu euskalduneko pertsona fisiko eta juridikoei zuzendutako jakinarazpen eta komunikazioak ele bietan egingo zirela bermatzen zuten, interesatuek espresuki bi hizkuntzetako bat erabiltzea aukeratzean salbu. Baina orain eragotzi egiten da euskara hutsezko harremana, eta testu elebidunak erabili ahal izateko –ilegalki– Departamentuko kontseilari titularraren baimena behar da. Hori Ekintza Planeko 4.1 puntuaren eta Foru Dekretu berriko 15.1 artikuluen zuzenbide osozko deuseztasun iturria da, azken artikulua honek ere erabiltzailea euskaraz atenditzea eragozten duen neurrian. Gogora bedi Foru Dekretu berriaren helburu nagusien artean 1.2.3 artikulua aipatzen duena dagoela, hau da, Nafarroako Foru Komunitateko zerbitzu nagusietan –dauden lurraldean daudela– erabiltzailea euskaraz atenditu ahal izateko behar adina langile antolatu eta gaitzea; beraz, logikoa den bezala, atentzio horrek eremu euskalduneko herritarrei zuzendutako notifikazio, komunikazio eta agirietan ere euskara erabili dadila eskatzen du, bertan bi hizkuntzak baitira ofizial.

Era berean, Foru Dekretuko 15.2 artikulua Ekintza Planeko 4.1 puntuarekin batera aplikatzean ikusiko balitz eremu mistoko herritarrek ez daukatela Foru Administrazioarekin –edo, bere kasuan, toki administrazioarekin– euskaraz aritzeko eskubiderik, artikulu horiek zuzenbide osoz deusezak izango lirarteke, Euskarari buruzko Foru Legeko 17. artikulua urratzeagatik.

Instituzioen arteko harremanen araudiari dagokienez, paradoxikoa da teoriarik euskararen

erabilera sustatu eta babestu beharko lukeen araudiak bere erabilera administrazioen arteko harremanetara mugatzea; izan ere, euskara hutsa erabiltzea eragotzi egiten da, gaztelania hutsa erabiltzea sustatzen da, eta hainbat inguruabarretan elebitasuna baimentzen da.

Azkenik, **inprimaki, errotulu, iragarki, publizitate eta argitalpenetako** irudi korporatibo eta instituzionalari dagokionez, badirudi 371/2000 Foru Dekretuaren xedea eremu mistoan errealtate euskaldunaren aztarna guztiak ezabatzea dela. Aurrez zegoen errealtate elebiduna aldatu nahi da, eta bere ordean elebakarra inposatu, eremu mistoko euskaldunen %20a abstradituz.

Une hauetan egin beharreko galdera da ea Gobernuak ba ote duen Foru Dekretuko 16. artikulua bezalakorik onesteko eskuduntzarik, zeinaren bidez eremu mistoko Administrazio Publikoari errotulu, ohar, argitalpen, iragarki eta abarretan gaztelania hutsa erabil dezatela agintzen zaien. Euskarari buruzko Foru Legeko lehenengo azken xedapenak "ahalmena ematen dio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau *garatu eta aplikatzeko* beharrezkoak diren xedapenak emateko". Baina Euskarari buruzko Legeko zein artikulua garatzen du Foru Dekretu berriko 16. artikulua? Ezta bat ere. Are gehiago: 17. artikuluan herritar euskaldunentzat aurreikusten dena eraginkor bihurtzeko oztopoak ipintzen dira. Hori dela-eta, Foru Dekretuko 16. artikulua zuzenbide osoz deuseza izango litzateke bere babesa Euskarari buruzko Legean bilatzekotan, eta ez litzateke eremu mistoko Administrazio Publikoetan aplikatu ahal izango.

Azkenik, 2001eko urtarrilaren 8ko Ekintza Planeko 3.2, 3.3 eta 3.4 puntuen legaltasuna aztertu behar da:

"3.2. Seinalizazioa, errotuluak eta zigilu ofizialak.

Lehenbailehen behar diren pausoak emanen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen eraikuntza, egoitza, bulego, langela eta beste edozein lokaletako fatxadetako errotuluak gaztelania hutsekoak izan daitezten. Prozedura bera erabiliko da seinalizazio eta identifikazio elementu guztiekin. Esandakoa betetzen ez dutenak berehala kenduko dira.

3.3. Argitalpena, iragarkiak eta publizitatea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen organoen xedapen, jakinarazpen, argitalpen, iragarki eta publizitate modu guztiak, edozein euskarri grafikokoak, gaztelania hutsean emanen dira. Salbuespen gisa, argitalpenaren kontseilari arduradunak idatziz espres aginduko balu, elebiduna izan liteke. Puntu honi buruzkoa era berehala betetzen hastekoa da.

3.4. Bideetako seinaleak.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko kontseilariak behar diren neurriak hartuko ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontrolpekoak edo jabetzakoak diren bide, errepide, autobia eta autobideetako seinaleak gaztelania hutsean errotula daitezten. Orain daudenak, agindutakoa betetzen ez badute, lehenbailehen kenduko dira."

Bistan da artikulua hauen ilegaltasuna, ez baitute euskararen erabilerririk txikiena ere egiten uzten. Gainera, ez dute Euskarari buruzko Legearen babesik. Horien bitartez desagerrarazi egiten da Euskarari buruzko Legea onetsi zuen legegileak eremu mistorako aurreikusitako *tertium genus*, eta horrek eremu ez-euskaldunaren baitan sartzen du eremu mistoa –legegile horren beraren borondatearen aurka–; UPN Talde Parlamentarioak egin nahi zuena hain zuzen ere, nahiz eta bere proposamenak atzera bota ziren Nafarroako Parlamentuan. Legean sartzerik izan ez zena, arau infralegalen bidez lortu nahi da orain, Legearen aurka. Hori juridikoki ilegala da eta, beraz, zuzenbide osoz deusezak izango lirateke artikulua.

Gainera, inork uste al du Foru Administrazioiko zerbitzu nagusiek "erabiltzaileari zerbitzua euskaraz" ematearen "helburu nagusia" –Foru Dekretu berriak dioen bezala (art. 1.2.3)– bete daitekeenik, seinalizazioa, errotuluak, iragarkiak eta abar gaztelania hutsean daudenean? Errespetatzen al dira halako inguruabarretan eremu mistoko euskaldunen hizkuntza eskubideak? Eta eremu mistoan dauden zerbitzu nagusietara doazen eremu euskalduneko euskaldunen eskubideak? Ez al da horrelakoetan Euskarari buruzko Foru Legeko 3. artikulua debekatzen duen diskriminazioa sortzen?

Nire iritzian, garbi dago eremu mistoko Ekintza Planean jaso eta artikulatutako neurriek euskara sustatzearen aurkako xedea daukatela. Horregatik, ez daukate lege estaldurarik, eta diskriminatu egiten dituzte euskaldunak, eremu mistoan ezin baitzaie euskarazko zerbitzurik eman –gainera, aurrerantzean, zirkulazioko seinale estatikoak edo errotuluak ez dira gehiago ele bitan egongo–. Euskarari buruzko Legea egiterakoan Parlamentuko debateetan onartu ez zena, erregelamendu mailako arau baten bidez –babes legalik gabea– lortu nahi da, hots, bi eremu bakarrik sortzea (euskalduna eta ez-euskalduna), eta eremu mistoa edo *tertium genus* desagerraraztea.

Euskara, eremu ez-euskalduneko Administrazio Publikoetan

Adierazi den bezala, Euskarari buruzko Legeak "Nafarroako Administrazio Publikoari euskaraz zuzentzeko eskubidea" aitortzen die

eremu ez-euskalduneko herritarrei. Baina aipatutako Administrazioek "gaztelaniazko itzulpena eskatu ahal izango diete interesatuei" edota, bere kasuan, Nafarroako Gobernuak Iruñan sortu behar dituen euskara-gaztelania itzulpen zerbitzu ofizialen unitate administratiboak erabili (Euskarari buruzko Foru Legeko 18 eta 9. artikulua).

Lehen, zera xedatzen zuten 70/1994 eta 135/1994 Foru Dekretuek eremu ez-euskaldunari dagokionez: "herritarrak, *beren eskubidea egikaritzuz*, Administrazio Publikoek euskaraz zuzentzerakoan, Administrazio Publikoak itzulpen ofizialeko zerbitzuak erabiltzen saiatuko dira herritarrei zerbitzua emateko" (17. art). Eta indarrean dagoen Foru Dekretuko berriko 17.1 artikulua dioenez:

"Eremu ez-euskalduneko Administrazio Publikoek interesatuei eskatuko diete euskaraz aurkezten dituzten agiriaren gaztelaniazko itzulpena ere aurkez dezatela aldi berean, baina, ezinezkoa bada, itzulpen ofizialeko zerbitzuak erabili ahaliko dituzte herritarrei zerbitzua emateko, horiek, *beren eskubideak erabiliz*, administrazioetara euskara hutsean zuzen daitezkeenean."

Idazketa korapilotsu honek –aurkakoa dirudien arren– Euskarari buruzko Legea onestu ondoren zeuden bezalaxe utz ditzake gauzak. Izan ere, artikulua lehengo zatiko "eskatuko diete" horrek hasiera batean agintera dirudien arren –Legeko "eskatu ahaliko dute" ahalezkoak ez bezala–, ondoren erlatibizatu egiten da "ezinezkoa bada" esaterakoan, eta, Legeak bezala, zabalik uzten du itzulpen ofizialeko zerbitzuak erabiltzeko aukera (idatzizko harremanetan, noski).

Foru Dekretuko 17.1 artikulua haren posible balitz eremu ez-euskalduneko Administrazio Publikoek gaztelaniazko itzulpena derrigorrean eskatu behar izatea, orduan artikulua hori nire ustez zuzenbide osoz deuseza izango litzateke, zeren eta Legeak aukeratzeko askatasuna ematen die Administrazio Publikoek, eta Foru Dekretuak ezin du askatasun hori Toki Administrazioaren arloan galarazi.

Beraz, eremu ez-euskalduneko Administrazio Publikoek erabaki beharko lukete gaztelaniazko itzulpena behar ote den –herritarra euskaraz zuzentzen zaienean–, Iruñan dauden itzulpen ofizialeko zerbitzuak erabili behar diren, edota elebidunei zuzenean euskaraz atenditu ahal izatea bermatuko duten zerbitzu administratiboak antolatuko diren –gai diren langileekin–.

Euskarari buruzko Legeari jarraiki, Nafarroako Administrazio Publiko guztiek herritar euskaldunen hizkuntza eskubideak babestu behar dituzte, eta "hizkuntzagatik diskriminatzea galarazteko behar adina neurri" hartu beharko

dituzte (EFLko 1.2.b art.). Era berean, euskara "Nafarroako berezko hizkuntza gisa bultzatu behar da eta, ondorioz, herritar guztiek izan dezatela jakin eta erabiltzeko eskubidea" (EFLko 2. art.).

Foru Dekretu berriaren argitan, bi gai aztertu beharra dago. Lehenengoa, puntuala, Foru Dekretuko 17.2 artikulua legaltasunari dagokio. Bigarrena, zabalagoa, eremu ez-euskalduneko Administrazioetako lanpostuetan sartzeko euskara jakitea exijitu edo baloratzeko aukerari dagokio.

Zera adierazten du Foru Dekretuko 17.2 artikulua:

"Eremu ez-euskalduneko administrazio publikoek eta haien lotutako zuzenbide publikoko entitateek egiten duten jardura, inprimaki, zigilu, agiri, jakinarazpen, komunikazio, seinalizazio, errotulazio, argitalpen eta publizitate oro gaztelaniaz izanen da."

Esan beharra dago horrek ezin duela inolaz ere galarazi eremu ez-euskalduneko kokatutako udal bateko Osoko Bilkurak seinalizazioa edota bulegoetako errotulazioa ele bietan (edota, are, hiru eletan; ingelesez ere bai) egitea erabakiko balu, hala egitea. Bestetik, udal horrek zerbitzua euskaraz emateko adina langile gaitu edukiz gero, komunikazioak euskaraz egiterik izango al luke? Zentzuak baiezko erantzuna ematera behartzen du, ezin baitu bestela izan. Gakoa, beste behin ere –herritarrek euskara erabiltzeko duten eskubidea bermatzeko–, Administrazio ez-euskaldunen kasuan barne, funtzionarioak euskara ulertzeko eta erabiltzeko gai izatean datza.

Baina –eta gatozen bigarren gainera–, eremu ez-euskalduneko Administrazioek exiji al dezakete, lanpostu zehatz batzuk betetzeko gaitasun baldintza gisa, euskara jakitea, edota merezimendu gisa baloratu, erabiltzaileek haiengana euskaraz zuzentzeko duten eskubidea bermatzeko langile gaituak izatearren? Zera zioen honen inguruan Nafarroako Gobernuak 2000ko ekainaren 19an onartutako Foru Dekretuaren Proiektuko 24. artikulua:

"1. Eremu ez-euskalduneko, Nafarroako Administrazio Publikoek ez daukate plantilletan aurreikusitako lanpostuak betetzeko euskara jakitea derrigorrezkotzat jotzeko inolako obligaziorik, eta ezta merezimendu gisa baloratzeko ere.

2. Euskara jakitea derrigorrezko edo merezimendu gisa kalifikatzen denean, dagokion ebazpenak plantilla organikoan dagokion akreditazioa adieraziko du, eta gainerako ekintzak Foru Dekretuko honetako 18 eta 20. artikuluetan ezarritakoaren arabera egingo dira.

3. Eremu ez-euskaldunear euskara jakiteari merezimendu gisa ematen zaion balorazioak ezin izango du Europako Batasuneko erabilera ofizialeko hizkuntzen baitan frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteari merezimendu gisa ematen zaion puntuazioa baino handiagoa izan, eta hala adieraziko da dagokion deialdian.”

Jakina denez, gerora Proiektuari buruzko Irizpena eskatu zitzaion Nafarroako Kontseilu Kontsultiboari, eta zera adierazi zuen honen inguruan:

“Euskarari buruzko Legeko 18. artikulua ez du ezer esaten lanpostuak betetzeko euskara jakitea merezimendu gisa hartu behar diren inguruan, eta beraz, euskara jakiteak ezin du, oro har, sartzeko baldintza bat izan, eta ezta ere lanpostu horiek betetzeko merezimendu ere. Hala ondorioztatzen da Konstituzioko 103.3 artikulutik (“Legeak arautuko du... funtzio publikoan sartzea, merezimendu eta gaitasun printzipioei jarraiki”), eta hori bera ezartzen du abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretu Legegileak onartutako Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateratuko 5.4 artikulua ere.

Auzitegi Konstituzionalak, maiatzaren 29ko 138/2000 Epaiean, berrestu egin du funtzio publikoan sartzeko eskubidea egikartzeko baldintzen erregulazioa Lege erlatibo baten erreserbari menpekotu behar diren doktrina. Goi Auzitegiak dioenez, “erregelamenduek, Legeak hala eskatzen duenean, erreserbatutako gaiaren ordenazio legalaren alderdi instrumentalak osatzen edo partikularizatzen lagun dezakete. Baina ahalmen erregelamendugileak ezin izango du diziplina legegilea ignoratu edo ordezkatu, eta legegileak ezin izango du erreserbaz baldintzarik gabeko eragorpenen bidez baliatu, edo muga zehatz eta zorrotzik gabe, horrek murriztu egingo lukeelako Parlamentuaren ahalmena, ahalmen erregelamendugilearen onuran, eta hori erreserba sortzen duen arau konstituzionalaren aurkakoa izango litzateke [ekainaren 11ko AKE 99/1987, 3. FJ; martxoaren 20ko 47/1990, 7. FJ; martxoaren 2ko 48/1998, 7.FJ; martxoaren 31ko 73/1998, 3. FJ]] (maiatzaren 29ko 138/2000 AKE, 6. FJ).

Epai horretan bertan, berdintasun printzipioarekin lotzen da funtzio publikoan sartzeko funtsezko eskubidea, eta ondorio honetara iristen da: “funtzio publikora berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipio konstituzionalen arabera sartzeko aurreikuspena garrantzitsua da Konstituzioko 23.2 artikulua aintzatesten duen berdintasun printzipioaren ikuspegitik, bertan aitortzen eta bermatzen duen funtsezko eskubidearen edukia baita. Eskubide hau urratu egingo litzateke baldin eta erregelamendu bidez edota Legea nahiz funtzio publikoan sartzeko prozedurak arautzen dituzten arauak aplikatzen dituzten egintzen bidez funtzio publikoan sartzeko aukera herritar edo talde zehatz batzuei bakarrik ematen dieten baldintza berriak sartuko balira, horretarako gaikuntza

legegilerik izan gabe, eta Legeak kanpoan uzten ez ditueni eskubideaz gozatzeko aukerarik eman gabe. Beraz, erabat debekatuta gelditzen da erregelamendu bidez edota Legea nahiz funtzio publikoan lanpostu zehatz batera sartzeko arauak aplikatzeko egintzen bidez lege estaldurarik ez daukaten baldintza berriak sartzeko aukera, eta legegileak desberdintasunik egin ez zuen lekuan desberdintasunak egiteko irizpideak ezartzea, irizpide berdinzalea alba batera utziz (martxoaren 20ko 47/1990 AKE, 7. FJ; ekainaren 20ko 185/1994, 5. FJ; abenduaren 3ko 1035/1986 AKA). Beste hitz batzuetan: Konstituzioko 23.2 artikulua (“legeek finkatutako baldintzekin”) Konstituzioko 103.3 artikulua (“Legeak arautuko du... funtzio publikoan sartzea”) uztartuz gero lortzen den ondorioa da baldintza horiek Lege mailako arauen bidez ezarri behar direla, ahalmen erregelamendugilea erabiltzeko aukera baztertu gabe, baina aipaturiko muga eta baldintzekin betiere. Beraz, esan behar da konstituzionalki debekatuta dagoela “funtzio publikoan sartzeko prozeduretan erregelamendu bidez edota Legea aplikatzeko egintzen bidez Legeak finkatzen ez dituen baldintza berri eta desberdinak sartzea” [otsailaren 14ko 27/1991 AKE, 5.b FJ]] (maiatzaren 29ko 138/2000 AKE, 6. FJ).

Hortik ateratzen den ondorioa da Foru Dekretuaren Proiektuko 24. artikulua ez duela garatzen duen Foru Legearen estaldurarik, eta Legeari erreserbatutako gaiak inbaditzen dituela. Beraz, ez zaio araudiari egokitzen.”

Irizpenean adierazitakoaren ondorioz, Foru Dekretuaren Proiektuko 24. artikulua desagertu egin zen behin betiko testutik. Beraz, Nafarroako Kontseilu Kontsultiboak azaldutako argudioak zuzen fokatuta dauden edo ez ikusi behar litzateke. Honi dagokionez, harridura sortzen duen lehenengo gauza da euskara sustatzeko xedea duen arau batek, eta Foru Dekretuaren proiektuko 24. artikulua, adieraztea euskara jakitea ezin dela merezimendu gisa ere baloratu –zeren eta, dirudienek, Euskarari buruzko Legean ez dago lege estaldurarik– eta, nolana ere, ez ipintzea inolako erreparrorik ingelesa, frantsesa edo alemanari dagokienez proposatzen den balorazioari, inolako lege estaldurarik ez dagoela –ziur gainera–.

Bigarren, onar daiteke Irizpenak aipatzen duen Auzitegi Konstituzionalaren doktrina orokorra, baina 138/2000 AKEn adibidean plantzeatzen den arazoak ez du –inondik inora– Kontseilu Kontsultiboak aztertutako arazoaren antzik, zerren eta AK-k aztertutako gaia auzitegi batek lehiaketa batean lege eta erregelamendu bat aplikatzearen ondorioz Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiak onartutako irizpideen interpretazioaren ingurukoa da.

Gure kasuan, ordea, Euskarari buruzko Foru Legeko 18. artikulua “Nafarroako Administrazio Publikoari euskaraz zuzentzeko eskubidea” aitortzen die eremu ez-euskalduneko herritarrei. Nola berma diezaieke eremu ez-

euskalduneko Toki Administrazio batek eskubide hori zuzenean bertako herritar euskaldunei? Argi dago, Legeak esplizituki esan ez arren –bai ostera eremu euskaldunean eta mistoan–, modurik eraginkorrena hainbat lanpostu eskuratzeko euskara jakitea exijitzea edota merezimendu gisa baloratzea izango dela, Foru Dekretuaren Proiektuko 24. artikuluan aurreikusten zen bezala. Kasu hori lege estaldurarik gabea izango al litzateke? Nire ustez, inolako zalantzarik gabe, ez, zeren eta Legeak zuzenean ez, baina zeharka bai aurreikusten duela euskaraz zuzentzeko eskubidea bermatu nahi den heinean, adibidez ahozko harremanetan.

Gainera, eremu ez-euskaldunari dagokionez, Nafarroako Kontseilu Kontsultiboaren Irizpenak dioenez, “euskara jakiteak, *oro har*, ezin du lanpostu bat betetzeko baldintza izan, ez nahitaezkoa, ez merezimendua ere...”. *A sensu contrario*, argi eta garbi esan nahi du kasu zehatzetan bai izan daitekeela. Ez dut uste zentzu pixka bat daukan inork pentsatuko duenik eremu ez-euskaldunean euskara jakitea “oro har” exijitu edo merezimendu gisa baloratu behar denik. Baina ulergarria izan liteke lanposturen batean exijitzea edo merezimendu gisa baloratzea, betiere kontuan izanik bai errealitate soziolinguistikoa, bai bete beharreko lanpostua, bai herritarrek Administrazioari euskaraz zuzentzeko duten eskubidea, azken hau Administrazioaren izenean –herritarren solaskide gisa– diharduen funtzionarioak euskaraz dakienean bakarrik bete ahal izango dena zuzenean.

Labur esanda, eremu ez-euskaldunean funtzio publikoan sartu nahi dutenen merezimendu eta gaitasuna hobeto baloratzeko kasu zehatz batzuetan euskara jakitea exijituko edo baloratuko balitz, nire ustez nahikoa izango litzateke Euskarari buruzko Foru Legeko 18. artikulutik eratorritako lege estaldura. Baina, lehen aipatu bezala, gogoan izan behar da Nafarroako –eta Estatuko– Lege formal bateko artikuluko batek berak ere ez duela, funtzio publikoari dagokionez, Europako Batasuneko Instituzioetako hizkuntza ofizialak exijitu edo baloratzeko bide ematen; eta, jakina, herritar komunitarioek ez daukate Nafarroako Administrazio Publikoari beren hizkuntza propioan zuzentzeko eskubiderik. Kontseilu Kontsultiboak ez du honi buruzko objektiorik egiten Administrazio Publikoetan euskara erabiltzeari buruzko Irizpenean.

4.2. Jurisdikzionalki kontrolagarriak diren xedapenak, zuzenbide osoz deusezak direla presumitzeagatik

Ikuspegi formaletik, 372/2000 Foru Dekretua eta eremu mistorako Ekintza Plana

onesten duen 2001eko urtarrilaren 8ko Erabakia zuzenbide osoz deusez deklaratzeko argudiorik sendoena, Nafarroako Euskararen Kontseiluaren nahitaezko txostenaren falta da, nire ustez (1.B atalean *supra* argudiatu dudana moduan).

Ikuspegi materialetik, 372/2000 Foru Dekretuan nahiz 2001eko urtarrilaren 8ko Gobernu Kontseiluaren Erabakian zuzenbide osoz deusez deklaragarriak diren artikuluko aztertu ditut legaltasunaren azterketan. Irizpen honen luzera kontuan hartuta, ez naiz berriz horiek sakontzen hasiko, eta ezta ere deuseztasuna sortzen duten akatsak dauzkaten artikuluko errepikatzen ere. Nolanahi ere, prozesuaren ikuspegitik aipatu beharra dago indarrean dagoen Jurisdikzio Kontentzioso-Administratiboko Legearen arabera, helegite zuzena tartera daitekeela erregelamenduen aurka (26.1 art.), eta, beraz, aipatutako bi arauen aurka. Edozein interesatuk tartera dezake helegite zuzena, eta argi dago legitimatuta daudela bai Nafarroako eremu linguistikoa desberdinetako Korporazio lokalak, eta baita Nafarroako edozein Administrazioarekin erlazionatzen diren pertsona fisiko eta juridiko guztiak ere.

Helegitea, logikoa den bezala, ordenamendu juridikoaren edozein urraperetan oinarri daiteke, boterearen desbideraketa barne (70.2 art.). Gainerakoan, Jurisdikzioaren Lege berrian helegite zuzen hauek tramitatzeko arau berezi batzuk daude; besteak beste, bere tramitazio eta konklusioari lehenetsia emateko (66. art.), eta helegiteari hasiera demanda bidez eman ahal izateko (45.5 art.), helegindako arauen elaborazio espedienteak eskuratzeko beharrik gabe, nahiz eta elaborazioko akats formal posibleen ikuspegitik aztertzea litzatekeen aukera hau. Ekintza Plana prestatzerakoan Nafarroako Euskararen Kontseiluaren nahitaezko txostenaren faltaren inguruan bakarrik ez, baizik eta Nafarroako Kontseilu Kontsultiboaren Irizpenaren faltari buruz ere hausnar liteke, Nafarroako Foru Gobernu Kontseiluak onesten duen arau izaera du-eta.

Kasu honetan oso esanguratsua da helegitea tarteratzeko idazkian edota demandan helegindako artikuluko guztien kautelazko eskepena eskatu beharra (129.2 art.). Jakina, argudiatu behar da Dekretuko eta aipaturiko Ekintza Planeko artikuluko berehalakoan aplikatzeak helegitearen helburu legitimoa eragotz dezaketela. Honi dagokionez, errotulu elebidunak jada kentzen hasiak direla aipa liteke, 2001eko otsailaren 2ko prentsak dioten bezala; eta esanguratsua da Nafarroako Gobernu Unibertsitate eta Hizkuntza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak Iruñan duen egoitzako errotulutik euskara jada kendu izana.

5. Ondorioak

LEHENENGOA.- 372/2000 Foru Dekretuaren eta eremu mistorako Ekintza Planaren filosofia juridikoa bat datoz UPN Talde Parlamentarioak Euskarari buruzko Foru Legea prestatzerakoan defendatu zituen postulatuekin. Baina kontua da Lege hori ez zela UPNko botoen bidez onestu, erabateko desadostasuna agertu baitzuen onartu zen eremutzearen aurrean eta, batez ere, eremu euskaldunaren eta ez-euskaldunaren artean *tertium genus* bat –eremu mistoa– egotearen aurrean.

BIGARRENA.- Era berean, Foru Dekretuaren Proiektuak euskararen ofizialtasunaren hainbat ondorio mugatu nahi zituen eremu euskalduneari, baina zorionez Nafarroako Kontseilu Kontsultiboaren Irizpenari esker, asmo horiek –hein batean– ez dira bete.

HIRUGARRENA.- Oro har kontuan izan behar da hizkuntzen ofizialtasunaren ondorio juridikoez modulazio zehatzak eska ditzaketela, errealitate soziolinguistikora eta herritarren borondatarea egokitzeko. Une honetan ez da beharrezkoa testuan azalduko hizkuntza arloko funtsezko printzipioak sintetizatzea, baina bai hizkuntzagatik ez diskriminatzeko printzipioaren garrantzi praktikoa berrestea.

LAUGARRENA.- Nafarroako errealitate soziolinguistikoa euskararen ofizialtasuna Foru Komunitate osora zabaltzeak oso balio sinboliko esanguratsua izango luke, baina juridikoki modulazio ugari beharko lituzke, eta horrek gutxi aldatuko lituzke egungo araudiaren materialtasuna eta aukerak. Beraz, ikuspegi praktikotik, garrantzitsuena euskaldunen hizkuntza eskubideen berme maila zehaztea da, baina kontuan hartuz etorkizunean Foru Komunitatea osatzen duten lurralde linguistiko desberdinak “eremu euskaldun” deklaratzeko aukera emateko adina malgua dela LORAFNA.

BOSGARRENA.- 372/2000 Foru Dekretuko zioen adierazpenak bere artikulatutan zehar egiten dituen aldaketan irudi distorsionatua ematen du, estali egiten duelako araudia aldatzearen benetako xedea. Gainera, ez dio Nafarroako Euskararen Kontseiluaren nahitaezko txostenari aipurik egiten. Argi dago Foru Gobernuak urratu egin duela 135/1996 Foru Dekretuko 4. artikuluan xedatutakoa, bai 372/2000 Foru Dekretua elaboratzeko prozesuan, bai 2001eko urtarrilaren 8an onetsitako Ekintza Planean. Eta araudiaren urraper hori –konponezina uneotan–, erabat deuseztatzailea da.

SEIGARRENA.- Badirudi 372/2000 Foru Dekretuan eta eremu mistorako onetsitako

Ekintza Planean artikulatzen diren neurri materialak Foru Dekretuko 1.2 artikuluan aipatutako oinarriko helburuak lortzea ezinezko bihurtzeko daudela pentsatuta. Batzuetan, gainera, argi baino argiago gelditzen dira kontraesanak.

ZAZPIGARRENA.- Eremu euskalduneari euskararen ofizialtasuna enpresa publikoetara ere zabaltzen da, inolako zalantzarik gabe, Euskarari buruzko Foru Legeko 15.1 artikulua diotenari jarraiki. Era berean, Foru Dekretuko 9.2 artikulua 4/1999 Legeko 36.3 artikuluekin eta apirilaren 6ko 50/1999 AKErekin bat interpretatu behar da, fede publiko administratiboa eta ziurtagiri funtzioak dauzkaten funtzionarioek agiriak euskara hutsean prestatzerik izan dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoan sortu behar dituztenean ondorioak.

ZORTZIGARRENA.- Eremu euskalduneko lanpostuetan sartzeko euskara jakitea nahitaez jakin beharri eta bere balorazioari dagokionez, Foru Dekretu berriko 18.3, 18.4 eta 21.1 artikulua zuzenbide osoz deusezak dira, Irizpen honetan zehar argudiatzen den bezala (IV.1.D atala).

BEDERATZIGARRENA.- Foru Dekretuaren helburu nagusia, esplizituki aitortzen ez bada ere, eremu ez-euskalduneko hizkuntza erregimena eremu mistora zabaltzea da –2001eko urtarrilaren 8ko Ekintza Plana berehalakoan onestu izanak frogatzen duen bezala–, edo, beste hitz batzuekin esanda, eremu mistoari aplikatzen zaion hizkuntza erregimen juridikoa desagerraraztea, eta eremu ez-euskaldun gisa hartzea. Jakina, helburu hori Legean jasota egongo balitz, ezin izango litzateke juridikoki auzitan jarri, baina Foru Dekretuak eta bere Ekintza Planak Euskarari buruzko Foru Legearen edukia errespetatu beharra daukate. Hori ez egitean, biziata daude, eta zuzenbide osoz deusez deklaragarriak dira Foru Dekretuko 12.3, 15.1, 15.2, 16, 22.1, 22.2 eta 23.1 artikulua, eta baita aipatutako Ekintza Planeko 3.2, 3.3, 3.4, 4.1, 4.3 eta 5.1 puntuak ere, Irizpen honetako funts juridikoetan eta informazioan oinarrituz (IV. atala, 1.E).

HAMARGARRENA.- Eremu ez-euskalduneari kokatutako Administrazio Publikoetan, Foru Dekretuko 17.1 artikulua Euskarari buruzko Legeko 18. artikuluekin bat interpretatu behar da. Horrela, eremu honetako Administrazioek erabakiko dute –baldin eta herritarrak zerbitzuengana euskaraz zuzentzeko duen eskubidea egikaritzen badu– herritarrari itzulpena eskatu behar zaion, Iruñako itzulpen zerbitzu ofizialak erabiliko diren, edota, langile gaituenez, euskaldunei zerbitzua zuzenean euskaraz eman ahal izateko antolatuko diren. Nire iritzian, ez dago eragozpen juridikorik eremu ez-euskalduneko hainbat lanpostutan, kasu

zehatzetan, euskara jakitea exijitu edo baloratzeko, funtzio publikoak bete nahi dituztenen merezimendu eta gaitasuna hobeto ebalua daitezzen, eta, horrela, herritarrek Administrazioarengana euskaraz zuzentzeko duten eskubidea berma daitezzen.

Hauxe da nire Irizpena, zeina, ohikoa den bezala, Zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinetara menpekotzen dudana. Donostian, 2001eko otsailaren 5ean.

Iñaki Agirreazkuenaga
Zuzenbidean doktorea
Administrazio Zuzenbideko katedraduna

Itzultzailea: Koro Garmendia

